

ELKARRIZKETA: JUAN AYESTA, DIARA DISEINU INDUSTRIALA

ARKO

FAGOR

# Arate

1998ko  
Azaroak 6  
427. zenb.

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 00 43



## Tatuajeak moda ala kultura?

IKUSPEGIA: KARMELE PEREZ • GURE ENPRESAK: CASA CECIAGA  
EUREN IKUSPUNTUTIK: ASUN AGIRIANO • KULTURA: GURUTZE URIBARREN



# Arrasateko OSASUN GIDA

## AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10 -1 ..... ☎ 943 77 13 34

## GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ..... ☎ 943 77 14 72

## ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ..... ☎ 943 77 00 40
- JUAN RAMON ARANDO. Erdiko kale, 22 -1 ..... ☎ 943 79 72 16

## FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis ..... ☎ 943 77 03 96

## LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ..... ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... ☎ 943 79 48 77

## MASAJEAK

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk ..... ☎ 943 77 06 22
- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ..... ☎ 943 77 01 33

## ODONTOLOGIA

- ADUR ODONTOLOGIA INSTITUTU MEDIKUA Iturriotz, 35 ..... ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ..... ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ..... ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA Iturriotz, 7 Bis ..... ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ..... ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ..... ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ..... ☎ 943 77 12 63

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... ☎ 943 79 44 22

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ..... ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ..... ☎ 943 79 29 95

## ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPIEDIA Kontzeziño, 2 ..... ☎ 943 79 89 34

## OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ..... (Mobila) ☎ 989 58 66 89

## OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea ..... ☎ 943 79 20 18

## PODOLOGIA

- AZKARATE MORRAS Uribarri etorbidea, 5 behea ..... ☎ 943 79 53 63

## PSIKOLOGIA

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... ☎ 943 79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... ☎ 943 79 48 77
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ..... ☎ 943 79 79 46

## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ..... ☎ 943 79 44 22

# Justizia egingo ahal da!

**1** 970ean txiletarrek Allende aukeratu zuten lehendakari. Berehala ITT (International Telephone and Telegraph Corporation) enpresako lehendakariak milioi bat dolar eskaini zuen zoritxar horrekin bukatzeko; Richard Nixonek hamar milioi dolar eskaini zituen eta CIA jarri zuen lan horretan; Txileko armada burua segada batean hil zuten, estatu kolpea egiteko prest ez zegoelako.



Karmele Perez

1972rako Txilek berreskuratu egin zituen kobrea, burdina, nitroa, bankuak, kanpo merkataritza eta industria monopolioak, baita ITTren nazionalizazioa iragarri ere beren errenta adierazpenean aitortzen zioten balioaren prezioa ordainduta. Enpresa horrek, baina, Txilek baino askoz gehiago irabazten zuen, 400 mila langile eta

funtzionario zituen munduko 70 herrialdetan eta zuzendaritza batzordean CIA eta Mundu Bankuko zuzendari izandakoak. Enpresa horrek, ekipo elektronikoak eta arma sofistikatuak egiten zituen, nazioko eta nazioarteko komunikazio sistemak antolatzen zituen, telefonoak eta diktadoreak egiten zituen.

Diplomazia balixa bidez iritsi zen dirua grebak, sabotajeak, eta gezurrak ordaintzeko. Enpresarioek Txile geldiarazi eta janari gabe utzi zuten: merkatu beltza, ilara luzeak, konspirazioa, Estatu Batuetako gudaontziak kostaidean... eta, azkenik, estatu kolpea...

Horraio E. Gaeanak kontatua. Hortik aurrera mila aldiz entzun dugun izua, bortxa, genozidioa... baita, komenentziak, demokraziara egindako jauzia ere, bere etorkizun erosoia ziurtatuko zuten klausulekin, jakina.

Eta orain historiak justizia egin nahi duela dirudi. Espainiako epaileek erbia harrotu dute eta hor dabilta hemengoak eta hangoak nondik harrapatuko. Nik neuk badut zalantza estatu espainiarreko epaileak ba ote diren nor horrelako ikerketa eta epaiketa bideratzeko. Are gehiago mugaz barrura ikusitakoak ikusita. Balio izan du, bai, mundutarrok inpunitatearen aurkako oihu bateratua egin dezagun, eta bazen garaia. Baina horrelako epaiketa bat norbaitek egitekotan, Txilek berak egin beharko luke edo nazioarteko epaimahai batek beharbada.

Hala ere, beldur naiz horrek guztiak ezertarako balioko ez ote duen, txiletarren artean berriz emandako istiluak eta banaketak ikusita. Izan ere, konpentsa daiteke nolabait egindako kalte guztia? Gure hiltarteko senatorea libre dagoela jakinda, ez dut nik gehiegi espero justiziarengandik. Hedabideetan behin eta berriz errepikatu den legez, inmunitatea eta inpunitatea sinonimo bihurtu dira. ■

**“Inmunitatea eta inpunitatea sinonimo bihurtu dira”**

*“Fagor eta Euskadiko Kutxaren ostein, Arrasateko Udala izango da herrian ondasun gehien dituen erakundea”*

Jose Mari Loiti

# 6.400

**bazkide ditu Arrasateko liburutegiak**

Horietatik 4.262 helduak dira eta 2.138 haur eta gazteak. 1.858 bazkide (0-16 urte bitartekoak) Monterrongo haur eta gazte liburutegira joaten dira. Gainerako 280ak Santamainakora. Liburutegi biek 130 m<sup>2</sup> dituzte. Gutxitxo, seguruenik, Arrasateren premietarako

ITURRI ONETIK

## Olandixoko tunela

Datorren martxoan Markuleteko industrialdea urbanizatze lanak hasiko dira. Urtebete beharko da inguru hartan industrialde batek behar duen azpiegitura ezartzeko: ura, argindarra, telefonoa, parkinak, etab.

Aurreikuspenak betetzen badira, enpresa berri batzuk ezarriko dira hor eta gaur egun hor dauden batzuk, Ederlan kasu, handitu egingo dituzte fabrikak. Beraz, bizpahiru urte barru izugarri handi liteke ibilgailuen zirkulazioa bide horretan. Pentsa zer gerta litekeen Munarko biribilaren inguruko zirkulazioarekin.

Olandixoko tunela ezinbestekoa bihurtu liteke, ez bada nahi Arrasateko zirkulazioa erabat geldiarazi ordu jakin batzuetan. Gipuzkoako Foru Aldundiak, berriz, ezetz eta ezetz dio.

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK  
ARRASATE PRESS

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31  
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 77 05 65. Faxa: 943 77 09 40  
E-mail: arrasatepress@readysoft.es  
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marjo Deogracias, Ubane Madera, Mader Osa. **Publizitateak:** Katin Allende, Nerea Zallo, Arantazu Lagunilla. (Tel.: 943 77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaiñzarain (Tel.: 943 79 02 26)  
**Diseinua:** Txos Azurmendi. **Astoburuetak berri-maleak:** Lierni Uribearen. **Bekaduna:** Gontzal Landa.  
**Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ixaro Antola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Oro-bengoa, Mikel Itzar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Besalde M. E., Karmelo Uribearen, Bixente Pagodega, Amaia Jauregi-Arriburu, Jose Mari Asilgarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Salin, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopl, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maitte Barrena. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 26). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Lege-Gordailua:** 1124/86. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo konzentratua. **Inprimategia:** Ger-tu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Marjo Deogracias.

Arrasateko Udalaren laguntza  
Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza  
Eusko Jaurlaritzako Kultura Salaren laguntza

## GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala, 6  
• Egunez eta gauez: Morales, San Andres
- Larunbata, 7  
• Egunez eta gauez: Azkoaga, Ferrerías
- Igandea, 8  
• Egunez eta gauez: Español, Iturriotz
- Astelehena, 9  
• Egunez eta gauez: Korkuera, Musakola
- Astearte, 10  
• Egunez eta gauez: Irizar, Erguin
- Asteazkena, 11  
• Egunez eta gauez: Amezua, Santa Marina
- Osteguna, 12  
• Egunez eta gauez: Zabala, Zarugalde

## BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**  
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 79 53 00  
Igalatorioa ..... 943 79 05 00  
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) ..... 943 79 39 00  
(emakumeak) ..... 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutze Gorria**  
Bergara ..... 943 76 55 76
- DYA**  
Antzuola ..... 943 78 71 57
- Anbulatorioak**  
Arrasate (Larrialdiak) ... 943 79 13 57  
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 943 77 03 46  
• Espezialitateak ..... 943 77 05 78  
Onati ..... 943 77 12 64  
Oñati ..... 943 78 08 52  
Eskoriatza ..... 943 79 98 58  
Aretxabaleta ..... 943 79 74 58  
Aramaio ..... (945) 943 45 51 16
- Anbulantziak**  
Gipuzkoako ambulanziazkiak 943 45 87 44
- Udaltzaingoa**  
Onati ..... 943 78 04 11  
Bergara ..... 943 76 14 69  
Arrasate ..... 943 79 14 39  
Aretxabaleta ..... 943 79 10 52  
Eskoriatza ..... 088
- Ertzaintza**  
Arrasate ..... 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**  
Udal taldea ..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088
- Matxurak**  
Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) ... 943 12 01 62  
Gasa ..... 900 40 05 23  
..... 943 79 78 44  
..... 943 79 76 78
- Garraioak**  
Taxiak ..... 943 79 12 22  
PESA ..... 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
Iturbide Egoitza ..... 943 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Kontsumitzailearentzako informazioa**  
KIUB-OMIC ..... 943 79 51 55
- Monterron liburutegia**  
Monterron ..... 943 77 01 05
- Irratia**  
Arrasate Irratia ..... 943 79 58 77

## ARRASATE PRESS, ARRASATEARRREN ZERBITZURA

**O**rain dela hilabete batzuk *Arrasate Pressen* formato aldaketa zela eta, helburua herritarrei interesatzen zaizkien gai buruzko informazio zabalagoa ematea zela irakurri genuen (nahiz eta aipamenik ez egin nork edo zelan erabakiko den zer den herritarrentzat interesgarria).

Hainbat ale "berri" jaso ondoren, azkenengo biak aipatu nahi ditut eta erreflexiora deitu *Arrasate Presseko* zuzendaritza eta baita irakurleak ere.

Urriak 13, HBk (Arrasateko herritar gehien ordezkatzen duen alderdi politikoak) prentsaurreko bat eskaini zuen Udalaren funtzionamendua azaltzeko, salatzen eta bereziki herritar guztiak ohartarazteko. 40 minutu inguruko prentsaurrekoa izan zen eta hiru orri oso idatzita luzatu zitzaizkien kazetari guztiei (*Arrasate Presseko*ei barne).

Bada, aste horretako alean (424. zenb), gai honi laukitxo barregarri batean sartutako informazioa eskaini zitzaion, eta esan beharra daukagu, gainera, gure prentsaurrekoan emandako funtsezko informazio guztia alde batera utziz, informazio okerra eta nahasia izan zela.

Urriak 19, Osoko Bilkura Berezia egin zen Udaltxean (goizeko 09:00etan). Gaia: Udal Ordenantzak (denok ulertzeko, herritarrak udalari ordaindu behar izaten diogun kontribuzioa, autoa, ura, zaborra, obra-baimenak,

etabarren prezio berriak ezartzeko...). Osoko Bilkura horretan, Loitik eta bere taldeak planteatutako igoerak ez ziren onartu, ez zituztelako nahikoa boto lortu eta EB eta HBren kontrako botoak jaso zituztelako.

Bada, aste horretako *Arrasate Pressen* (425. zenb) ez da aipatu ere egiten Osoko Bilkura hori egon zenik.

Ez ote dira interesgarriak gai hauek herritarrentzako?

Bukatzeko, adierazi nahi nuke, bi hauek adibide gisa eman badituzte ere, beste hainbat aipa ditzakedala. Zer esanik ez, *Arrasate Presseko* dituen zenbait mugaz ere ohartzen naizela, baina amateurtasunak uste dut ez dela justifikatzen, azken denboretan nabaritzen hasiak garen agintariekiko "begirune" laruxka hori; aitzitik, uste dut, zale ez-profesional hain esperimentatuz osaturiko aldizkari batek eduki beharko lukeen freskotasan falta duela sarri *Arrasate Presseko*.

Honetan, behar bada, denok gara errudun, baina norabidea desegokia dela uste dut. Badakit zaila izan daitekeela egungo medio ospetsuek, gehiegitan, eskaintzen diguten eredu zabarren kutsaduraz libratzea, baina uste dut, ahaleginez lor daitekeela.

*Arrasate Press*, denok hartzen dugun, baina inortxok eramaten ez duen eguzkia izan dadin...

*Ino Galparsoro*  
(HBko zinegotzia)

## MONLEONGO ABADENA

**G**ustura irakurri nuen orain aste batzuk Pio Barojaren omenez edo, argitaratu zenuten artikulua. Egia esan, irakurri barik neukan "El Cura de Monleon" eta sekulako gogoak egin zitzaizkidan leitzeko.

Ibili naiz dendaz-denda eta ez dut inon aurkitu.

Z.L. (15.632.984)



## Okerrak zuzentzen

Orain bi asteko alean "Lizarr-Garazi akordioa" izena zuen gutuna argitaratu genuen. Azken orduko zuzenketa batek eraginda, ez zen agertu sinatzailearen izena: Arrasateko ESK.

Joan den asteko alean, osterara, okerreko argazkia ateratu genuen 28. orrialdean. Bai Euskarari Batzordearena barik Zahar-Berri egitasmoaren aurkezpenarena jarri genuen.

**M**  
**MEMESA**  
Industria hornidurak  
Tel. 943 71 24 25

**UGARAN**  
jatetxea  
Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

*Sili Sili*  
Martxa eta estilo handiko arropa  
Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82

# Jango zenuke zaborretako gasekin hazitako tomaterik?

Donostian tomateak horrela hazten dituen negutegi bi ireki dira.



**Xabi Mondragon**  
(19 urte)  
Ikaslea

Birziklapenaren alde nago, baina nahiago nuke hemengo baserrietan hazten diren tomateak. Dena den, jango nituzke.



**Aitor Pildain**  
(17 urte)  
Ikaslea

Nahiz eta esan biologikoak direla, nik kimikatik sortutako produkturik ez dut nahi. Zabortegitik badatoz, txarra.



**Maialen Gonzalez**  
(15 urte)  
Ikaslea

Nik ez. Gauzaren bat edukiko dute. Nik baserriko tomatea nahiago dut.



**Isabel Uribarren**  
(63 urte)  
Etxekoandrea

Biologikoa bada, bai. Dena den, nik ortua daukat eta nahiago ditut nik hazi eta nik ikusitako tomateak.



**M<sup>a</sup> Isabel Arsuaga**  
(52 urte)  
Etxekoandrea

Ez, nahiago nuke ez jan.



**Mikel Sebastian**  
(19 urte)  
Ikaslea

Bai, jango nituzke. Ziurtatuz gero onak direla, jango nituzke.



**Alex Paz**  
(23 urte)  
Langilea

Jakinez gero nondik datorren, ez. Zikinkeria nondik datorren ikusita, ez nuke jango horrela hazitako tomaterik.



**Cristina Romero**  
(24 urte)  
Langilea

Sekula ez nuke horrelakorik jango. Neure elikadura zaintzen saiatzen naiz eta ez nuke hori jango.

**ORTO + LAGUN**  
O R T O P E D I A  
*Berandu baino lehen, zaindu zaitez!*  
*Zuk nahi baduzu,*  
*zure osasuna zaintzeko gaude.*  
Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

**IRATI TABERNA**  
Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11  
ARRASATE

# Arrasate

## LANAK

### OTALORAN

Pilotalekuaren inguruan kamioiak arituko dira.

### URIBARRIN

Uriburu kalean eskailerak egiten ari dira.

### KONTZEZIÑO KALEAN

Lanean jarraitzen dute.

### KATAIDEN


Telefonikaren lanek arazoak eragingo dituzte.

### GAZTELUONDON

Horma bat botatzen.

### OBENERREKAN

Ur tutuak sartzen ari dira.



**Biztanleak:** 24.257  
**Eremua:** 33 Km<sup>2</sup>  
**Garaiera:** 211 metro


## Eguraldiaren aurreikuspena



**OSTIRALA 6**



**LARUNBATA 7**



**IGANDEA 8**

Zeru nahiko argiak. Goizean gandua. Temperaturak gora egingo du. Norabide aldakorrek haize motela.

Zeru nahiko argiak. Temperaturak gora egingo du apur bat. Hegoaize motela.

Hodei gutxi. Temperaturak aldaketarik ez. Hegoaize motela.

## Ilargia



**Ilbehera**

Azaroaren 11n, San Martin egunean, ilbehera izango dugu.

## Mezak

### Parrokia

Larunbatean 19:00 (elebiduna)

### Igandean:

09:00 (erdaraz)  
11:00 meza nagusia (euskaraz).  
12:30 (elebiduna)

### San Frantzisko

Larunbatean 19:00 (elebiduna)

### Igandean:

09:00 (euskaraz)  
10:00 (erdaraz)  
11:00 meza nagusia (euskaraz).  
12:30 (erdaraz)  
19:00 (elebiduna)

### Uribarri

Larunbatean 19:00 (elebiduna)

### Igandean:

11:30 (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)

### San Andres

Larunbatean 19:00 (elebiduna)

### Igandean

10:00 (erdaraz)  
11:00 (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)

### Santa Teresa


Larunbatean 19:00 (elebiduna)

### Igandean

10:30 (erdaraz)  
11:30 eta San Isidron (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)

**Urkuluko uraren maila**

**%92,6**



## Distantziak

### Arrasate

121	Baiona			
690	579	Bartzelona		
57	170	620	Bilbo	
1.159	1.038	2.883	1.207	Brusela
72	50	529	119	1.088
40	180	530	66	1.206
107	120	437	159	1.180
391	519	621	395	1.556
864	743	1.113	911	296
			792	910
			884	1.260
				Paris



Herri Komunikabideei  
Buruzko  
III. Jardunaldiak

ARRASATE

1998ko azaroaren 27 eta 28an

6

ostirala

■ ZINEA

*Conflicto de intereses*, Alai zineman, 22:00etan.

■ PIANO EMANALDIA

Juan Luis pianojoleak piano emanaldia eskainiko du Mondragon Hoteleko Cafe-Pianoan. Bere alaba Begok abestu egingo du. Emanaldia gaueko 23:00etan hasiko da.

7

larunbata

■ ZINEA

*Siempre queda el amor*, Alai zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ MUSIKA CAFE-PIANOAN

Juan Luis pianojoleak piano emanaldia eskainiko du Mondragon Hoteleko Cafe-Pianoan, bere alaba Begoren laguntzarekin. Emanaldia gaueko 23:00etan hasiko da.

■ SAN MARTIN JIAIK

16:00etatik 20:00etara umeentzako jolastokia antolatuko du Areamaion San Martinak ospatzeko. Eskolako jolaslekuan jarriko dituzte koltxonetak, puzgailuak eta bestelakoak. 21:30etan, berriz, Oskorri arituko da udal kiroldegian.

8

igandea

■ ZINEA

*Siempre queda el amor*, Alai zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ SAN MARTIN JIAIK

*Arniches* antzerki taldea arituko da gaueko 21:00etatik aurrera "Enseñar a un sinvegiüenza" antzeslanarekin. Sarrera nagusientzat 500 pta. izango da eta umeentzat, berriz, 300. Hau ere udal kiroldegian izango da.

■ DYA-RI LAGUNTZEN

Deba Garaiko DYAk, urteroko diru eskaera egingo du egun osoan zehar. Helburua 1.655.000 pta.ko aurrekontuari aurre egin ahal izatea da.

■ JUAN LUISEN PIANOAN

Mondragon Hoteleko Cafe-Pianoan arituko da Juan Luis pianojolea, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara.

9

astelehena

■ ZINEA

*Siempre queda el amor*, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

10

asteartea

■ ZINEA

*Siempre queda el amor*, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

11

asteazkena

■ HITZALDIA

"Hechos revolucionarios en Centroamérica. Y ¿Después, las mujeres qué?" hitzaldia eskainiko du Clara Murgialdaik. Hitzaldia Emakumeen Asanbladak antolatuko du eta Monterronen izango da, arratsaldeko 19:00etan.

■ ABERTZALETASUNA MINTZAGAI

"Abertzaletasuna, kezka eta erronkak, egitasmoak eta lehiak" izenburuko hitzaldia antolatuko du Zutikek Monterronen. Jonan Fernandez (Elkarriko koordinatzailea), Emilio Lopez Adan "Beltza" eta Joxe Iriarte "Bikila" arituko dira abertzaletasunaren inguruan berbetan. Saioa arratsaldeko 19:30etan izango da, Monterronen.



Mugarriz mugarri

Igandean, azaroak 8, Mugarriz Mugarri AEDren ekimenaren bigarren irteera egingo da. Igandean, Mugarri-Muru-Gesalibar-Besaide-Garagartza ibilbidea egingo dute. Autobusa goizeko 08:30etan aterako da, Garibai kaleetik.



# 12 osteguna

## ■ ZINEA

*Secuestro*, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

## ■ PIANO DOINUAK

Juan Luisek bere piano emanaldiekin segituko du gaur ere. Mondragon Hotelean izango da, arratsadeko 19:00etatik 21:00etara.

## ■ 1933KO ANDRAZKOEK BAZKARIA

Aurten 65 urte beteko duten andrazkoek, hots, 1933an jaiotakoek, bazkaria antolatu nahi dute. Afaria antolatzeko batzorde bat osatuko da. Bilera azaroaren 11n izango da, Abaroako TB gelan, 18:00etan.

## ■ DANTZA IKASTAROA HELDUENTZAT

Azaroan zehar, Bergarako Moises Aspiazu dantza taldeak helduei zuzendutako arin-arin eta fandango ikastaroa emango du. Larunbat goizetan izango da ikastaroa, 11:00etatik 12:30etara. Hileko 2.000 pta ordainduko da.

## ■ LORAMENDI

### X. LITERATURA LEHIAKETA

Loramendi euskara elkar-teak Aretxabaletako eskola arteko X. literatura lehiaketa antolatu du. Aretxabaletan bizi edo ikasten duen edonork har dezake parte. Bi maila izango dira: DBHkoa eta lehen hezkuntzako. Lan guztiek euskarazkoak eta inon argitaratu gabeak izan behar dute. Argibide gehiago 943 77 09 70 telefonoan.

## ■ ERTAMERIKARI LAGUNTZA

Nikaraguako Leonen bizi diren laguntzaile euskaldunek laguntza eskatu dute Mitch urakanak kaltetutakoentzat. Batez ere janari eta sendagaien beharra azpimarratu dute. Tel: 94 412 93 62/94 413 20 20 (Manu Taboada), 94 685 26 84 (Idoia Gorroño). Gipuzkoako Gurutze Gorriak kontu korranteak zabaldu ditu:

### Kutxa:

2101 0092 15 0010196970

Banco Guipuzcoano:

0042 0001 91 01100326208

Euskadiko Kutxa:

3035 0050 71 0500046056

## ■ MENDI IRTEERA KARRANTZARA

Besaidek mendi irteera antolatu du Karrantza-Turtzioara (Bizkaia) azaroaren 15erako. Izenematea azaroaren 10, 11 eta 12an izango da, arratsaldeko 19:30etatik 20:30ak arte.

Irteera goizeko 07:00etan izango da, Garibaitik.

## ■ LANDARE ETA LORE ZAINKETA IKASTAROA

Jakoba Errekondo agronomoak barazkiak, fruta arbolak, etxebarruko lorak, balkoiak eta kanpoko apainketa lorak nola zaindu irakatsiko du EKIN Emakume Elkar-teak, Bergarako Udaleko Emakume Sailarekin batera antolatu duen ikastaroan. Saioak azaroaren 10, 17 eta 24an izango dira Gesalibarko Jentil-Ola Elkar-tean, arratsaldeko 18:00etatik aurrera.

## ■ TAILU IKASTAROA

Arrasateko Tailaginen Elkar-teak, goi mailko tailu ikastaroa antolatu du. Interesatuak 943 79 77 57 (Joxe Mari) edo 943 79 67 64 (Imanol) zerbakiatarra dei dezakete. Ikastaroa larunbatean bertan, azaroak 7, hasiko da.

## Rock Kontzertua

Gaztetxeak sekulako kontzertua antolatu du datorren ostiralerako, azaroak 13. Soziedad Alkoholika, Koma, Iskanbila eta Ekon taldeak arituko dira, Musakolako kiroldegian. Kontzertua 22:00etan izango da. Sarrera aurrez 1.200 pta. kostako da eta egunean bertan, 1.400 pta

**USTEAK USTE**

**Gure industria kanpora**

**R**ima, Metalurgica Cerrajera Mondragonesa, Condesa, Asam... Arrasaten sortutako enpresak dira, garai batean edo bestean Araba aldera egin dutenak. Oraindik orain jakin izan dugu Ikerlanek ere Arabara eraman berri duela **Energia Saila. LKSK, bestalde, Donostiako Teknologia Parkean du beste sail bat.**

**“Eman eta zabal zazu munduan fruitua” gisa ulertu behar dugu hau ala gure industriaren emigratio moduan? Argi dago Condesa eta halakoen kasuan betiko joan zirela Arrasatetik. Horiek galdu egin genituen, erremedioirik barik. Ikerlan eta LKSren kasuan, berriz, oraindik zentralak hemen daukate eta, alde horretatik, desberdina izan liteke.**

**Dena den, pentsatu egin beharko genuke apur bat enpresa hauek zergatik ateratzen ari diren herritik. Merkeago zaielako? Azpiegitura hobek dituztelako hortik zehar? Hiriburuetako teknologia parkeetan inguru egokiagoak sortzen ari direlako?**

Joxe Aranzabal



**Haur eta gazteak liburutegian**

**Asun Agiriano\***

**U**r handitan sartzerik ez nuke nahi. Horrexegatik, sarrera gisa edo, datu orokorrekin, hau da, Arrasate herriaren ezaugarri batzuekin hasiko naiz: 24.257 biztanle inguru ditu. Horietatik 3.800 edo, haur eta gazteak dira, hau da, 18 urtetik beherakoak.

Arrasateko haur eta gazte liburutegiak hamabi urte darama zerbitzua ematen. Bi eremu ditugu 90 m<sup>2</sup>tan, baina biak elkartuta daude. Horrela bada, haurtxoteka, 0-6 urte arteko haurren txokoa gazteen tokiaren ondoan dago. Helduen liburutegia goiko solairuan dago, beraz, ez dute entzuten haurren zaratsotsa. Lekua da oraingoz dugun arazorik larriena, bai jendeari eskaintzeko, bai libururak sartu ahal izateko. Haur eta gazteen artean 1.858 bazkide ditugu, 0-6 urte bitartekoak. Horientzat 36 eserleku

daude. Haurtxotekan beste hamabost aulki daude, ume eta gurasoentzat.

Arrasaten badago haur eta gazteentzako auzo liburutegia, sei bat urte lanean ari dena. 280 bazkide ditu, 3.000 liburu eta 40 metro koadro.

Gazteek ez dutela irakurtzen. Hauxe da jende askoren kezka, batez ere kontuan harturik gazteei begira gaur egun egiten diren liburu ederrak.

“Gure sasoian”, komikiez gain, haur literatura zer

**“Gaur irakurtzen da, eta lehen baino gehiago. Kontua, ordea, ez da zenbat, zer baino”**

zenik ere ez genekien. Institutuan “helduen liburuak” irakurtzen genituen: Pio Baroja, Miguel Delibes edo R.J. Sender, adibidez. Gaur egun, ordea, liburu eta ipuin ikusgarriak eta ederki ilustratuak daukate txikiek. Eta bereziki beraiantzat idazten duten idazleak daude: J.S. I Fabra, Elvira Lindo, Andreu Martin, etab., etab. Liburu hauek, gainera, egungo gazteen ardurak jasotzen dituzte: drogak, langabezia, arrazakeria, etab.

Dena den, nire esperientziatik abiatuta, uste dut ez diogula hainbeste garrantzi eman behar kantitateari, “zenbat irakurtzen den” horri, irakurtzen denari baizik. Gaur ere irakurtzen dela uste dut, eta lehen baino gehiago. Kontua, ordea, ez da zenbat, zer baino.

Haurrek ezezik, helduok ere badugu zer irakurri. Irakurle giroa, bestalde, etxean sortzen da eta haurrek zein gazteek han ikasiko dute literaturak ez duela adinik, literaturak denbora berreskuratzeko balio duela. Urteek aurrera egin ahala, irakurtzeak gelditzeko parada ematen digu, ume batez besterik ez bada.

\* Haur liburuzaina

**Monte taberna**

Maalako arrabala, 11  
Tel.: 943 79 20 56

**Plus Ultra taberna**

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tel. 943 79 20 57



**ELEKTRONIKA**  
**ARTIKULUEN SALMENTA**  
Erdiko Kale, 7  
Tel.: 943 79 91 64 • ARRASATE

astea bi hitzetan

■ **Bidaiari Handiak Aramaion**

Larunbatean Bidaiari Handien literatura sariak banatu ziren Aramaioko udalategian. Euskal lanen artean, Ramon Ollasagastiren "Sei Arrasto Eskandinavian" nagusitu zen eta erdal lanean, Alberto Serainen "Andanzas por la cordillera".

Lehen aldia da Aramaioko Udalak lehiaketa hau antolatzen duela. Sagitario izeneko sari hauekin bidaia interesgarriak egiten dituzten idazleak nabarmendu nahi dira.

■ **Osoko bilkura berezia**

Joan den ostiraleko osoko bilkuran hamahiru gai landu eta onartu ziren. Aurtengo aurrekontuen kredituak aldatuko direla erabaki zen, EBren kontrako botoarekin. Usaetxe pla-

zan dauden bi lokal erostea ere onartu zen. Baita Arrasate eta Aretxabaletaren artean Mondragoeko industrialdea garatzeko hitzarmena. Era berean, proposamen berria onartu zen Aldaiko hilerritik San Kristobalekora aldaketa egin behar duten hilobi jabeentzat; hemen ere Ezker Batuak kontrako botoa eman zuen. HBko zinegotziak entzuleen tokietan jarri ziren eta ez zuten parte hartu bozketetan, udal gobernuaren lan egiteko moduagatik protesta gisa.

■ **Montiano alemaneraz**

Juan Ignacio Montiano idazle arrasatearraren "Zaino" polizia eleberria alemanieraz argitaratu berri dute. Liburu hau Santa Agedako psikiatrikoan eginiko ikerketa lan batean oinarrituta dago eta iaz kaleratu zuen

Granadako argitaletxe batek. "Crisálida" izanburudun bilduma bat egitea nahi zuten eta Montianoren "Zaino" izan zen bilduma honetako lehenengo liburua.

Montianoren bigarren liburua dugu hauex. Lehenengo, "El cadáver de porqueriza" izan zen.

■ **Eskualde Ospitalea, goi mailan**

Gizaker enpresak eginiko inkesta baten arabera, Deba Garaiko Eskualde Ospitalea erdi-goi mailakoa da. Inkesta maiatza eta apirila bitartean ospitalean izan ziren 402 laguni egin zitzaizkien. Haien esanetan, ospitalean harrera oso ona egin zieten eta hango gelak oso erosoak dira. Arrasatekoaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko beste 11 zentru ere aztertu ditu Gizaker enpresak.



■ **ESPIOIAK MONTERRONEN**

Jose Mari Velez de Mendizabalek bere azken eleberria aurkeztu zuen ostegunean Monterronen. "Samurai Berria" izenburua dauka eta trilogia osatzen du, "Yehuda" eta "Moskuko Gereziak" eleberrieekin batera. Espioiak eta izkutuko mundua dira Aramaioko idazlearen eleberri berriaren protagonista nagusiak. Dagoeneko 15 liburu eta 700 artikulua baino gehiago idatzi izan ditu Josemarik.

“ Unescok emandako datuen arabera, gizadiaren %15ek munduko errentaren %85 du. 4.000 milioi pobredaude eta 1.200 milioi miseria gorrian bizi dira. Mundua, gainera, gerra ekonomia mendeko dago. Honek ikerkuntzaren %25 eta 12 orduko 1.600 milioi dolar bereganatzen ditu”.

**ANTXON MENDIZABAL**  
*El Correo, 1998.10.18*

“ Humanitateak -Enpresa lizentziaturaren eginkizuna profesional gaituak sortzea da, enpresa eta gizarte erakundeetan pertsona eta erakunde kudeaketa, zuzendaritza eta garapenean sortzen diren eskari eta premiei erantzuteko prestatuak, dagozkien gizarte eta taldeak eraldatu eta hobetu ahal izateko betiere”.

**MONDRAGON**  
**UNIBERTSITATEA**  
*1998ko iraila*

**PUB HAIZEA**



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak**

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



Lehen jardunaldien aurkezpena Donostian, 1991n.

## ARKOK Herri Komunikabideei buruzko III. Jardunaldiak antolatu ditu

Arrasate Pressen X. urtemuga aprobetxatuz, Arrasate Komunikabideak, Arkok, Herri Komunikabideei buruzko III. Jardunaldiak antolatu ditu azaroaren 27an eta 28an. Jardunaldiok Arrasaten egingo dira, LKSk Olandixon duen egoitza nagusian.

Lehen eta bigarren jardunaldiak ere Arrasaten egin ziren, 1991n lehenak eta bi urte beranduago bigarrenak. Orduan arazorik inportanteena zen nola egin herri komunikabide bat. Galdera horri erantzun guran antolatu ziren jardunaldiak.

Gaur egun, berriz, 50 bat herri aldizkari eta hainbat eta hainbat herri irrati eta telebista sortu dira euskaraz, Euskal Herrian barrena. Beraz, arazorik larriena ez da nola egin herri komunikabide bat, baizik eta nola hobetu esku artean duguna. Horregatik, hitz bat baldin badago III. jardunaldi hauek markatzen ditue-

na hobekuntza da, beti ere kalitateari lotuta.

Aditu asko, hamazazpi, etorriko dira Arrasatera egun horietarako. Batzuek hobekuntza izango dute mintzagai, beste batzuek diseinua, irakurleen leialtasuna irabazteko metodoak ere jorratuko dira, hurbiltasunak herri

komunikabideetan eragindako presioak, publizitatea, hizkuntzaren zuzentasuna, edukiak, kalitate kontrolak, herri telebistak eta teknologia berriak.

Geure artean izango ditugu, besteak beste, Antonio Cancelo, Goio Arana, Ibon Sarasola, Ricard Rafecas, Luis

Fernandez eta Angel Luis de Grado.

Guztira 150 eta 200 bat lagun espero dira azaroaren 27an eta 28an. Jardunaldietan parte hartu nahi duenak 12.000 pta ordaindu beharko du. Topagunea elkarteko kideek, aldiz, 2.000 pta merkeago izango dute izenematea. Azaroaren 11 arte izango da izena emateko epea.

Arkok bidali ditu esku programak eta propio jardunaldietarako egin den Herri.KO izeneko berripapera. Jendea hasi da izena ematen.

Aurreko urteetan bezala, laguntzaile inportanteak izan ditu Arkok jardunaldi hauek antolatzeko. Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Gipuzkoako Foru Aldundia, Arrasateko Udala, Euskal Herriko Unibertsitatea, Eusko Ikaskuntza, Euskadiko Kutxa eta Gertu inprimategia. Euskara elkarteak biltzen dituen Topagunea ere babesle izan da.





"Sindikatuaren etxea" izenarekin ezagutzen dena.

## Hauteskunde sindikalak: ELAk gainerakoek beste ordezkari atera ditu ia

Hauteskunde sindikalak irailaren 14an hasi ziren Arrasaten. Dagoeneko herriko 33 enpresatan egin dira bozketak. Hala ere, oraindik hainbat enpresa handi falta dira, hala nola Gelma, Roneo, Cerrajerera, Eskualde Ospitala, Aranzabal, Trefileria Arrasate, Polmetasa eta Gamei. Batzuek aurten egingo dituzte hauteskundeak eta besteek datorren urtean. Dagoeneko, beraz, 74 ordezkari sindikal hautatu dira, baina beste 70 falta dira aukeratzeko.

Hauteskunde Batzordeak egiaztatu dituen datuen arabera ordezkari sindikal gehien atera dituen sindikatuak ELA izan da: 36 ordezkari atera ditu. Bigarren LAB izan da, 15 ordezkari; hirugarren UGT, 10 ordezkari, bosgarren Comisiones Obreras, 7 ordezkari eta azkenik, ESK, 6 ordezkari.

Beraz, eta urriaren 28a biarte egin diren hauteskundeetan ELAk beste sindikatu guztiek batera beste ordezkari atera ditu ia.

Laupabost enpresa baino ez ditugu aipatuko, adibide gisa. Horrela, gizonezkoen psikiatrikoan ELAk 5 ordezkari izan ditu, Comisionesek 2 eta ESK-k beste 2. Emakumezkoen psikiatrikoan, ostera, ELAk irabazi ditu ordezkari guztiak: 9. Arrasateko Udalean ELAk 5 ordezkari hartu ditu, LABek 4 eta ESKk 1. Omicon, ELAk 1, ESK-k 1, LABek 1 eta UGTk 2. Uribe-salgonean ELAk 2 eta LABek 3. Joman, azkenik, UGTk jokoz zeuden hirurak eskuratu ditu.

Oraingoz irabazle agertu diren sindikatu bietako ordezkariak konforme agertu dira egin dituzten adierazpenetan.

Oraingoz irabazle agertu diren sindikatu bietako ordezkariak konforme agertu dira egin dituzten adierazpenetan.

### Hauteskunde sindikalak Arrasaten\*

Sindikatuak	Ordezkariek
• ELA .....	36
• LAB .....	15
• UGT .....	10
• CC.OO. ....	7
• ESK .....	6

\* Irailaren 14tik urriaren 28ra bitartean  
Iturria: Hauteskunde Batzordea

## Industrialde berria herrian

Arrasaten 15.000 m<sup>2</sup> inguruko industrialdea garatzeko asmoa dago. Markuleten Udalen 10.000 m<sup>2</sup> erabiliko dira pabilioiak egiteko. Zerrajeran, berriz, 4.000 edo 5.000 m<sup>2</sup> erabili nahi dir.

Egitasmo hau garatzeko, Aretxabaletako industrialdea Mondragoera hedatzeko hitzarmena egin da bi herrien artean. Hau guztia aurrera ateratzeko 400 milioi pezeta inbertituko dira. Horietatik 98 milioi pta Aretxabaletako Udalarari eman behar dizkio Arrasateko Udalak. Izan ere, Mondragoe "Aretxabaletako Industrialdea" elkarteko kide da Beste 302 milioiak, Spri-lur-ek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak jarriko dituzte.

Datorren martxoan, berriz, Markuleteko industrialdeko 105.000 metro koadro urbanizatuko dira. Lanek urtebeteko iraupena izango dute. Urbanizatze lanak direla eta, Uribarri auzoko Telleria baserria bota eta beste toki batean eraiki beharko da, industrialdetik kanpoko lurretan.

## Aramaioarrak, Deba Garaiko

Arrasateko Udalak erabaki duenez, Aramaioko pertsona nagusiak Deba Garaikotzat hartuko dira aurrerantzean, Iturbide Egoitzan sartzeko orduan. 1993an onartu egin zen aramaioarrek Arrasateko Iturbide Egoitzan sartzeko aukera izatea, baina izatez arabarrak direnez, orain arte behintzat, puntu gutxiago lortzen zituzten Arrasate, Deba Garaia eta Gipuzkoako hiritarrek baino. Hemendik aurrera gauzak errazago izango dituzte.

## ARETXABALETA


### ① Eskia ikusgai

Aretxabaletako Murruxiko Mendi Elkarateak antolatutako mendi astearen barruan, ostegunean eskiari buruzko diapositiba emanaldia egon zen. Batis Goikoetxea hizlari lanean ibili zen Zاراia zineman. Aneto mendiari buruzko emanaldiak "Eski Zeharkaldia: Aneto-Posssets-Perdido". Era berean, aste honen barruan, gaur "Trasandina 97" izena duen beste diapositiba emanaldi bat izan da Zاراian. Txema Sánchez eta Aintzane Egibarrek, Andeatatik zehar bizikletan eginiko bideari buruz arituko dira, gaueko 22:00etatik aurrera.

## ELGETA

### ② Gabonetako ipuinak

Gabonetako ipuin lehiaketa zabalik egongo da azaroaren 20a arte. Elgeta zein Bergarako eskoletako ikasleek parte har dezakete. Lehiaketa hau Elgetako Udalaren Kultura zerbitzuak, Gaztetxeak, Guraso Elkarateak eta Goibekokale herri aldizkariak antolatatu du.



## ANTZUOLA

### ③ Enpresa azoka

Hilaren 28an eta 29an Antzuolako enpresek azoka egingo dute pilotalekuan. Honela, larunbatean arratsaldeko 17:00etatik 20:00ak bitartean

zabalik egongo da, ikusi nahi duenarentzat. Igandean, aldiz, eguerdian ere irekiko da, 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldean 17:00etatik 20:00etara. Era berean, hilaren 26an Antzuolako enpresek mahainguria antolatu dute.

## BERGARA


### ④ Etxanizen alde

Jose Mari Etxaniz presoaren askatasuna eskatzeko kale agerraldia izango da larunbatean, eguerdiko 12:00etan. "Jose Mari askatu" elkargoak deitutako kale agerraldi hau Bergarako Udalak, EAJK, EAK, HBK, Zutik taldeak, ELAK, LABek, ESK-k eta EHNEk ere onetsi egin dute. Preso bergarar honek 19 urte daramatza espetxean eta 1995az geroztik kalean beharko luke, legearen arabera.

## OÑATI

### ⑤ Araztegi berria

Gipuzkoako Uren Partzuergoak bi araztegi jarriko ditu Deba ibaiaren ibilbidean. Bata Bergaran ipiniko dute eta bestea Oñatin. Oraindik kokapena erabakitzeke dago. Europako Batasunak hondakin uren inguruko eskaerak direla eta, euskal administrazioa neurriak hartzen ari da. Eusko Jaurlaritzaren Ingurugiro Sailak egindako txosten baten arabera, Deba ibaia Gipuzkoako errekarik kutsatuena da. Noiz arte jasan beharko dugu lotsa hori?



Tailaje  
zabalena  
zure esku

# Laura

Erdiko Kale, 30 • ARRASATE Tel.: 943 79 05 80



# Amaia Martiartu / Estatu Batuetan sindikalista

**Amaia Martiartuk hiru urte daramatza Estatu Batuetan bizitzen. Urte bat pasatzera joan, eta Geoffekin ezkondu zen. Euskal Herria eta Estatu Batuen artean igaro ditu Amaiak azken urteak. Hainbat hiri ere ezagutu ditu, New York, Seattle eta San Francisco, adibidez. Hainbat lanetan ibili ostean, orain sindikatu batean dabil. Marrubiak batzen dituztenei laguntza ematea da bere lana. Oraintxe bertan, guztiz murgilduta ibili da Kaliforniako hauteskundeetan. Bixitara etorri da hona, baina badoa berriz ere. Hori bai, dena ondo joanez gero, abuztuan berriz hemen egotea espero du.**

**— Zein da zuk igartzen duzun alderik handiena bizimoduari dagokionez?**

— Orokorrean hitz egitea oso zaila da, Ameriketan mundu guztitik etorritako jendea bizi baita, baina zerbait esatekotan han jendeak lan asko egiten duela esango nuke. Bizimodua lanaren inguruan eraikita dago. Askok mugitzen dira. Adibidez, norbaitek lana

aurkitzen badu bizi den lekutik beste puntan, etxebizitza aldatu egiten du lan berrira joateko.

**— Zer da faltan gehien sentitzen duzuna?**

— Hemengo aisialdia, denbora libre. Han jendeak lanordu eta lanegun desberdinak dauzka eta oso zaila da lagun-taldea elkartzea. Dendak ez dira ixten, jendeak ordu desberdinetan jaten du. Honek guztiak asko murrizten du jendearen arteko harremana. Familiaren barnean ere, behin etxetik joanez gero, posible da senideak inoiz ez ikustea berriz. Hori guztiz onartuta daukate.

Kalera irtetea eta taberna batean lagunik ez aurkitzea ere oso faltan sentitzen dut. Hemen normala da kalera irten eta ezagunen batekin elkartzea, baina han ezinezkoa da.

**— Zerbait onik izango dute, ezta?**


— Bai, bai. Han lagun bat egiten duzunean, nahiz eta gero berriz inoiz ez ikusi, berarekiko harremana oso-oso sakona da. Jendea

askoz ere errazago zabaltzen da, eta arazoren bat izanez gero, asko laguntzen dute. Adiskidetasuna oso preziatua da. Gainera, han jendea babesik gabe dago hemengoekin alderatzen baditugu. Han lana galtzen baduzu, ez zara ezer. Kontratuak egitea hemen baino zailagoa da, ez dago Osakidetzarik, ez dago pentsiorik... Askotan familia urruti dago, oso urruti, eta ondorioz, oso garrantzitsua da adiskide bat izatea. Bizimodua askoz ere zailagoa da. Euskal Herrian, onerako edo txarrerako, dena bideratuta dago.

**— Baduzu harremanik han bizi diren euskaldunekin?**

— Etorri aurretik San Franciscoko Euskal Etxean izan nintzen. Bitxia da hango egoera. Euskaldun gehienak Iparraldekoak dira. Argentinatik San Franciscora joanda dauden artzainak. Baina bestela, ez dut harremanik beste euskaldunekin. Ez dut astirik, lan larregi egiten dut.

Bukatzeko, Amaia zoriontzea gustatuko litzaiguke, haurdun baitago.



*Estatu Batuetan ez bezala,  
Euskal Herrian, onerako edo  
txarrerako, dena bideratuta dago*



## LOREAK BARRA-BARRA

Domu Santu egunean jende guztiak, gehienak ez esatearren, lorez betetzen ditu senide edo lagunen hilobiak. Kanposantua elegante egoten da eta lora saltzaileak poz-pozik gelditzen dira egun batean sekulako salmenta egiten dutelako. Aurtengoa ez da salbuespena izan.




## HORI BAI BIZI!

Norbaitek Arkon primeran bizi garen dudarik balu, izkutuko artxibotik ixil-ixilik "lapurtutako" argazki adierazgarri hau ikustea besterik ez du. Bilera batean gaude. Ondo ezta? Beti horrela izango balitz, aizue...

### HIES EKIMENA

Astelehen, astearte  
eta ostiraletan  
Setatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99



LOGOPEDIA  
ZENTRUA  
ARRASATE

Logopedia eta psikologia  
tratamendu kliniko eta  
hezitzaileak haur eta  
helduentzako.

Erdiko kale, 37 - behea  
Tel.: 943 79 79 46 • ARRASATE

## TTUKUN

Fotokopiak  
Liburu jostekak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62





## ETORRI HONA, TXIKITO!

Monika, Laura eta Valentziako lagunak Zarautzera joan ziren egun pasa eta, hara!, bat-batean Javier Clemente ikusi eta lasterka joan zitzaizkion ondora argazkia ateratzera. Poz-pozik joan ziren egun horretan hondartzara.

## ETA ORAIN ZER?

Hogeita bat urte tabernan zerbitzen eta azken bost urtetotan Belun taberna gidatzen ibili da Rafa.


Baina bizimoduari 180 graduko jirabuelta eman eta irailaren 21ean tabernari lanak utzi egin zituen. Ea bada Rafa, zorte hona duzun bizitza berri horretan!




## LAU... SARDINA BAKILAO!

Euskadi Gazteak Gari Kortazar gonbidatu zuen "Hi bizi haiz hi" saiora Gariren idoloa den Maddalen Iriarterekin batera.

Baina mutiltxoa beldurtu edo lotsatu egin omen zen eta bizkarzain moduan Kaitin Allende eta Aitziber Aranburuzabala eraman zituen. Ondo pasatu zutela dirudi, ezta? Laukote ederra!





Mentxuk Santanderko tatuajegile batekin ikasi zuen tatuajearen teknika.

# Tatuajea: gorputza eta izpiritua margoz lotuta

**T**a edo *tatau*, Tahiti eta orokorrean Polinesia osoan, marraztu esateko erabiltzen den hitza da. Hortik dator tatuajea edo *tatuage* frantsesez, zein *tatuaje* gaztelaniaz. Tatuatzeko teknikak orratzen zitzadaz baliatzen da azalean betirako koloreak sartzeko. Honela egiten dira tatuajeak. Azalean ditugun bi azaletatik, dermisa eta hepidermisa, tatuajegileak dermisa zulatzen du, marrazkia azalean txertatuta geldidakin.

Horrela esanda beldurra eman dezake, baina emaitzak

**Tataua, tatuatu behar den pertsonaren gorputzaren eta izpirituaren arteko lotura da. Horrela definitzen du tatuajea Mo'o tatuajegile tahitiarrak. Dena den, gaurko egunean badirudi tatuajeak galdu egin duela esanahi hori. Gaur egun edozeinek dauka bere gorputzaren zatiren bat margoturik. Berdin da zein kolore edo zein irudi: tatuajeak balio du.**

ikusi behar dira, ezer esan aurretik. Asko eta asko dira aspaldian euren gorputzak marrazten dituztenak. Gaur egun ez da arraroa besoa, hanka, sorbalda, bizkarra edo beste edozein gorputz ataletan koloretako zein zuri-beltzeko marrazkiak ikustea. Baina zer da tatuajea? Nondik dator?

Tatuatzea moda edo kultura da?

Garai batean arraza edo leinu baten iherarkia maila adierazteko erabiltzen ziren tatuajeak. Gaur egun, elementu estetiko bilakatu dira. Gure gorputzak edertzeko erabiltzen ditugun apaingarriak dira tatuajeak. Baina aldaketa horrek ez dio kalte egiten

tatuajearen kulturari?

Mentxuk eta Mireiak tatuajeak egiten dituzte Arrasateko bi dendatan: Totem izenekoan lehenak eta Eklipsen bigarrenak. Orain dela gutxi hasi dira lan honetan, baina dagoeneko asko dira haien lana ezagutzen duten mondragoe-tarrak. Biek baieztatu digute Arrasaten, eta Euskal Herrian orokorrean, (nahiz eta hiriburuetan urte gehiago daramatzaten tatuatzeko lekuak zabalik) tatuajearen kultura gorakada izugarria bizitzen ari dela. "Tatuajeak boladan daude" baieztatu digute biek, inongo



Totem dendako Mentxuk tatuajeak egiteaz gain, nierring-a ere egiten du



Mireiak egun oso bat eman zuen neska honen tatuajea egiten.

dudarik gabe. "Horren adibide garbia dugu, udara pasazenetik gutxiago direla tatuajea egitea erabakitzen dutenak. Neguan gorputza ez dugu bistan eramaten eta horregatik askok nahiago izaten dute hurrengo udara etorri arte itxaron", azaldu digu Mentxuk. "Eta hori negua hobea izaten dela uda baino, tatuajeak egiteko. Egin berri dagoen tatuajea ezin duzu eguzkitan jarri babesik gabe", dio Mireiak.

### ETA MONDRAGOETARREK?

Mentxuk adierazi digunez, "neskek eguzkiak, izurdeak, zaldiak... lorekin nahastutako tribalak eta antzekoak atsegin dituzte. Mutilek, berriz, tribalak, animalia handiak, buruhezurrak...". Mireiak dioenez, "ipotxak, sorginak, dragoiak eta ilargiak dira herrikoek gustuko dituzten irudiak".

Baina estilo asko daude. Francesca Frigeriok eta Matteo Pirontik idatzitako "El Tatuaje" liburuan tribalak, japoniarak, tradizionalak, zuri-beltzezkoak, kolorezkoak, erretratuak, zeltikoak eta biomekanikoak bereizten dituz-

te. Hauen guztien artean irudi tribalak izango lirateke gehien egiten direnak. Arrazoia sinplea da: duda duen jendeak edo zer egin ez dakienak honelako irudi abstrakto bat egitea erabakitzen du. Dena den, Mentxuk dioenez, "egokiena litzateke bakoitzak bere ideia ekartzea, honela tatuajea askoz ere pertsonalagoa da eta".

### GAZTETXOENEN AUKERA

Modak ez du adinik izaten eta horixe bera gertatu da tatuajearekin. Mireiak eta Mentxuk adierazi digutenez, geroz eta gehiago dira adin txikiko tatuajezaleak. Baina nola margotu bizi guztirako adin txikiko baten gorputza? Gurasoen baimena eskatzen dute gure bi tatuajegileek. Tatuajea bizi guztirako dela argi uzten saia-

tzen dira eta zalantzak dituenari ondo pentsatzeko eta beste egun batean itzultzeko ere esaten diote.

Bada aldi baterako tatuajeak daudela esaten duenik ere. Baina tatuajea margoa azalpean txertatuz egiten denez, nahiz eta tinta motelagoak erabili "inoiz ez da guztiz joaten, ez bada laserra erabiltzen, eta hori gaur egun oso garestia da". Hori dela eta, aholkua eskatu diegu eta biek aho batez esan digute: "ziur ez bazaude, ez egin".

### OSASUNA ZAINTZEN

Garai batean eskuz egiten ziren tatuajeak, baina gaur egun makinak erabiltzen dira lan honetarako. Osasuna zaindu behar den garaian bizi gara eta zauriak ondo baino hobeto zaintzen dira. Hori dela eta,

higienea funtsezkoa da tatuajeak egiteko orduan. Marrazkia erabaki eta gero irudi hori transfer deritzan paper mota batera pasatzen da. Azal zati hori garbitzen da eta transferra jartzen da gainean. Jadanik marrazkiaren eredia azalean txertatuta dago eta tatuajegilea lanean has daiteke. Azalaren zulo bakoitzeko ziztada bat. Makinaren orratza gora eta behera ibiliko da, marrazki gutzia osatu arte.

Orokorrean bi edo hiru orratz motarekin lan egiten da: lerroak egitekoa, barrukoak egitekoa eta tatuaje handiak egiteko erabiltzen den haize-maile formaduna.

Mentxuk eta Mireiak eurek egindako orratzak erabiltzen dituzte. Soldatu egiten dira bata bestearen atzetik eta tatuajea amaitzean punta kentzen zaie eta hori bota egiten da.

Orratza lotzen den puntari dagokionez, esterilizatu egin behar izaten da erabile-ra bakoitzean. Eklipseko Mireiak dioenez, "bezeroa zaintzen dugun bezala, gu geu ere zaindu behar izaten gara, edozein unetan geuk ere ziztada har genezake eta".

### PIERCING-A

Belarritakoak aspaldidanik ezagutzen dira, baina gaur egun bada zuloak edozein lekutan egiteko ohitura ere. Moda hau ere estetikaren eta gorputzari zor diogun kultuaren barruan kokatzen da.

Belarritakoak ez dira belarrietan bakarrik erabiltzen. Sudurrean eta bekainetan ere ikusten ohitu gara. Hortik aurrera, edozein leku izan liteke aproposa. Hori ere beste kultura mota bat da eta bizi egin behar da. Mentxuk azaldu digunez, "mingaina bat baino gehiago zulatu dut".

## Garai batean arraza edo leinu baten iherarkia maila adierazteko erabiltzen ziren tatuajeak

Marijo Deogracias ■

Eklipsen aritzen da Mireia. Bost bat hilabetean 100 tatuaje baino gehiago egin ditu



# Udalak 7.800 milioi pta ditu ondasunetan

Arrasateko Ondasun eta Eskubideen Inbentarioak dioenez, Arrasateko Udalak 7.800 milioi pta. ditu herrian zehar sakabanatuta dauzkan hainbat eta hainbat ondasunen artean.

Eraikinetan bakarrik, udala ia 4.000 milioi pta. ren jabe da. Kirol hornikuntzetan, aldiz, 1.000 milioi pta. ko balorea du, lokaletan 912, zerbitzu sareetan 855, lurretan 603, parkinetan 141, etxebizitzetan 115,5 eta biltegi-tan 17 milioi pta.

Fagor eta Euskadiko Kutzaren ostean, Arrasateko Udala izango da herriko jaberik inportantearena.

## SAN JOSEPEN SALDU

Horregatik, bada, udalaren ondasunak ez du gorabehera handirik izan azken aldi honetan egin dituen salerosketak direla eta. Alde batetik, bi etxebizitza

erosi ditu San Josepen. Bata hiru milioi pasatotan eta bestea hiru terdi baino gehixeagotan. Biak saldu zaizkie udalak jarritako hainbat baldintza betetzen zituzten bi familiari.

## LARREAN EROSI

Larrean, berriz, 101 metro koadroko bi etxebizitza

erosi ditu udalak, 18 milioi pta baino gehiago ordainduz. Etxebizitza biak udalak duen Gizarte Etxearen azpian daude. Udaltzatza osatzen duten talde guztiek onartu zuten erosketari hau azken osoko bilkura berezian, HB izan ezik, hau abstenitu egin baitzen ikusleekin batera hartu zuten tokian.

## Ondasun higiezinak

	Milioi pta.
Eraikinak .....	4.000
Kirol hornikuntzak .....	1.000
Tokiak .....	912
Zerbitzu sareak .....	855
Lurrak .....	603
Parkinak .....	141
Etxebizitzak .....	115,5
Biltegiak .....	17
<b>Guztira</b> .....	<b>7.643,5</b>

# Euroa

## Nola egingo da diru biribiltzea?

Gorantz edo beherantz joz, komaren ondorengo hirugarren zenbakia nolakoa den. Bost edo handiagoa baldin bada, aurreneko ehunenekoari biribiltzen zaio eta txikiagoa baldin bada, kendu egiten da. Joan den astean aipatu genuen adibidearekin jarraituz (0,6024), ehun pezeta euroaren 0,60 zentimo izango lirateke. Eta 3,3172 euro 3,32 bihurtuko lirateke.



**Euro baten balioa**

**166,5 PTA**

# FEMUR

Ferreteria Murgiondo, S.L.

## NEGOZIOA SALGAI

**Interesatuok deitu:**

943 78 06 65/943 27 85 43 (19:00-21:00)

943 78 21 95

Kale-zaharra, 22

## LAN ESKAINTZAK

Arrasateko Udalak lanpostu hau kontratatu nahi du:

- Emakumeentzako berdintasuneko agentea (Emakume Saileko teknikaria)

**Kontratu mota:** praktiketako

**Kontratuaren iraupena:** 2 urte

**Titulazio akademikoa:** erdi edo goi mailakoa (azken urteetan lortuta)

**Euskara:** 3.HE (EGA)

**Oinarri-arauak:** Udaletxean jaso daitezke.

**Epea:** 98/11/16



ARRASATEKO UDALA

**Pertsonal Saila**

# Casa Ceciaga

## tradizio handiko kinkiladenda

Nork ez du Casa Ceciaga kinkiladenda ezagutzen? Rosarito Ceciaga Bengoa gaur egungo nagusiak esan digunez, bere aiton-amonek ireki zituzten estraineko dendako ateak, 1907. urtean.

Lehenago, ordea, zinema baten jabe izan zen aitajauna, nahiz eta arrakasta eskasa izan antza, eta itxi behar izan. Dilijentzia zerbitzu bat ere jarri zuen. Haietako batean eraman zuten Angiolillo anarkista (Canovas del Castilloren hiltzailea) Bergarako epaitegira. Dena den, dilijentzia Lizarraraino heltzen ei zen. Gizon argitsuā izan zen, eta aurreikuspenak egiten bikaina. Gasolindegi bat ere eraiki zuen, baina Gerra Zibilean kendu egin zioten, "gorria" baitzen. Gerra garaian gorabehera handiak izan zituen, baina bizirik irautea lortu, eta kuku-erlojuak saltzeari ekin zion. Baita beturrekoak ere. Zentzu honetan, Ceciagak okulisten egitekoa bete zuen.

Gaur egun, ordea, kinkilana, arropa zurian eta osagaietan espezializatu da, nahiz eta oraindik ere saltzeko dituzten produktuen zerrenda luzea izan. Izan ere, barneko arropaz gain, pijamak, galtzerdiak, lanerako arropak edo ohialak aurki ditzakegu.



Beti bezala denda jendez gainezka zen argazkia ateratzerakoan.

Lehenago denda oraingo baino txikiagoa zen, lehen denda itsatsita etxebizitza baitzegoen. Orain, berriz, lehen etxebizitza izandakoa biltegi bihurtu da. Biltegia denda baino handiagoa da, salgai dituzten produktu guztiak asko direlako.

Rosarito Ceciagaren hitze-

tan, bere dendara batez ere emakumeak sartzen dira. Hala ere, garaiak aldatzen doaz eta gero eta gizon gehiago dira bertaratzen direnak.

Ceciaga dendako beste bitxikeria bat zera da: saltzaile guztiak emakumeak izatea. Rosaritok azaltzen duenez, saltzaileak emakumezkoak

dira, erosle gehienak sexu berekoak direlako. Anekdoten edo bitxikerien artean, honako hau kontatu zigun Rosaritok: behin gizon bat hurreratu zitzairen, oraindik ezagunak ez ziren galtzontzilo batzuen eske. Saltzaileak, noski, zur eta lur gelditu ziren.

**JUBAR**  
ATEAK. S.L.®

- BURDINAZKO ATEAK ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.


Kataide industrialdea, 18 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 10 20 • Fax: 943 79 08 17

*Ipek Denda*

Iturriotz, 19  
(Herriko plaza) ARRASATE

Ψ  
NARE  
psikologoak

Haurrak - helduak - bikoteak  
RPS: 292/98  
Isasi, 17 - 1 • EIBAR •  
Tel.: 943 20 05 95



## Zaldibarko lehen jardunaldia

arunbatean ekin zieten mondragoetarrek 98-99ko Zaldibarko Futbito Txapelketari. Bere lehenengo egunean 10 norgehiagoka jokatu ziren jadanik ospetsu bihurtu den Zaldibarko futbito zelaian. Beste guztiak Iturrieko bi kantxetan jokatu ziren. Beraz, eta hilabete beranduago bada ere, abian da futbito txapelketa.

## Laburrak

### ■ LEHENENGOAK HIRUGARREN ALDIZ

Bukanak eta Lontxo Taberna taldeen arteko partidak eman zion hasiera, joan den larunbatean, Zaldibarko Futbito Txapelketari. Bukanak taldekoentzat, hirugarren urtea izan zen Txapelketari hasiera ematen zietela. Larunbatean 0 eta 9 galdu zuten Lontxokoen aurrean. Gol asko izan ziren

arren, Bukanakoak ohituta daude txapelketako lehen partida galtzera. Jakin dugunez, aurreko bi txapelketetan ere galdu egin zuten euren lehenengo norgehiagoka.

Aste honetan lo egiteko asti gehiago izango dute. Euren partida larunbatean izango da, baina Iturripen eguerdiko 13:00ean, Insert Coin taldearen aurka.

### ■ HASIERATIK KALE

Lauterbrunnen eta Potrosorri taldeen arteko norgehiagokan izan zen. Totem taldekoak arbitratu behar zuten partida hau, baina kale egin zuten euren betebeharrean.


Hori dela eta, lehen aldiz Bonba Taldiek antolatu duen txapelketa honetako lehenengo zigorra bete zen. Totem taldekoek bi partida gutxiago

izango dituzte eta horrez gain, txapelketaren izen ematean ipini zuten 8.000 pta. ko diru ezarpena galdu dute.

Arauen arabera, beste kalearen bat egingo balute, txapelketatik kanpo geldituko lirarteke Totem taldekoak. Dena den, eta hurrengo baterako, gogoratu bigarren orduan jokatzen dutenek, lehen orduko neurketak epai ditzaketela.

## OPEL ASTRA BERRIA



OPEL 

**TAKOLO AUTOAK**

**4 atedun Opel Astra berria jadanik eskuragarri duzu.**

**ZATOZ ETA PROBATU!!**

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia  
Tel.: 943 79 05 86 ARRASATE

## Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK			GOLAK			PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
ARGI IBILI	1	1	0	0	8	2	2
AC SURCOS	1	1	0	0	4	1	2
PIPWHIS	1	1	0	0	7	2	2
GANBELAS	1	1	0	0	7	3	2
NUEVO TABERNA	1	1	0	0	2	1	2
TAMAGOTXI	1	1	0	0	2	1	2
SOKOAKOAK	1	1	0	0	3	2	2
BRANKA TABERNA	1	1	0	0	4	3	2
KE OXTIAS	1	0	1	0	1	1	1
JOTAKABAU	1	0	1	0	1	1	1
LEYA	1	0	0	1	3	4	0
BABAJANA	1	0	0	1	2	3	0
POTROSORRI	1	0	0	1	1	2	0
GARAJE OSCAR	1	0	0	1	1	2	0
NACEX	1	0	0	1	3	7	0
KKJAURI	1	0	0	1	2	7	0
CARTONAJES IGA.	1	0	0	1	1	4	0
ONANIERENG	1	0	0	1	2	8	0

B taldea	PARTIDUAK			GOLAK			PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
ORLANDO PIRATA	1	1	0	0	8	1	2
BETRAYER	1	1	0	0	7	1	2
ZOTZ	1	1	0	0	6	1	2
ROTOR BOLBOGR.	1	1	0	0	8	2	2
DKB	1	1	0	0	3	1	2
AINAREXIA	1	1	0	0	11	4	2
IRATI STS	1	1	0	0	4	2	2
JEY HOLIGANS	1	1	0	0	2	1	2
DA IRIZTU	1	0	1	0	3	3	1
FRAGUEL GOL	1	0	1	0	3	3	1
PEPELUS	1	0	0	1	1	2	0
KOMANDO ALPAR	1	0	0	1	2	4	0
BUKANAK	1	0	0	1	4	11	0
ARROGOI TABER.	1	0	0	1	1	3	0
SOBR. DE CLARO	1	0	0	1	2	8	0
JAKO AL REY	1	0	0	1	1	6	0
EPEH	1	0	0	1	1	7	0
LAUTHERBRUNEN	1	0	0	1	1	8	0

## Komentarioa

### Golegileak

Lehen jardunaldiko talde golegilerik nagusia Txantxiku Kirolak taldea izan zen. 14 gol sartzea lortu zuen, Aterpe Kafetegia taldearen aurka. Bigarren izan ziren Ke Oxtias!!! taldekoak. Hauek 11 sartu zizkieten Rotor de Bolbogradori. Dena den, aipatu nahi dugu txapelketako lehen golak, Lontxo tabernakoek sartu zituztela, eurek jokatu zuten eta lehen norgehiagoka, 9 eta 0 Bukanak taldekoiei.

D taldea	PARTIDUAK			GOLAK			PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
TOTEM	1	1	0	0	6	0	2
AT CELAYA	1	1	0	0	3	0	2
LORATEGI	1	1	0	0	6	1	2
NARANJA MEKAN.	1	1	0	0	11	2	2
TXONTXONGILO	1	1	0	0	7	2	2
LOS HEREDIA	1	1	0	0	3	1	2
MAKAI	1	1	0	0	4	2	2
ALDAPA TABERNA	1	1	0	0	3	2	2
KOKA JUNIORS	1	0	1	0	4	4	1
KAMASUTRA	1	0	1	0	4	4	1
ETXE MOBEL	1	0	0	1	2	3	0
ELISABETH	1	0	0	1	2	4	0
INSERT COIN	1	0	0	1	1	3	0
AURRERA BOLIE	1	0	0	1	2	7	0
BORROCK ROLL	1	0	0	1	2	11	0
TXEYENEX	1	0	0	1	1	6	0
NATIONALE NEDE.	1	0	0	1	0	3	0
ILUNA TABERNA	1	0	0	1	3	6	0

## Hurrengo partiduak

### Azaroak, 7 larunbata Zaldibar

09:50 Irati STS - Zotz  
11:00 AC Surkos - Komando Alpargat  
12:00 Koka Juniors - Diego Antonio  
13:00 Garaje Oskar - KKJauri  
14:00 Sokoakoak - Kamasutra  
15:00 Etxe Mobil- Naranja Mecanica  
16:00 Fraguél Gol - Euskal Presoak  
17:00 Txantxiku Kirolak - Potrosorri  
18:00 Pepelus- Serengeti HC  
19:00 Construcciones Luso - Dribling

### Iturripe A

13:00 Balon Rojo- Xhass Aldapa  
14:00 Orlando Pir. - Rotor Bolbogra.  
15:00 Branka Taberna - Jako al Rey  
16:00 Lontxo tab. - Saukelu Scream  
17:00 Aita Menni 2010 - Bar Nuevo  
18:00 Rex 23 - Ke Oxtias!!!

### Iturripe B

13:00 Bukanak - Insert Coin  
14:00 Alai Gozokiak - Leya  
15:00 DKB - Aurrera Bolie  
16:00 Potroak - Decadencia  
17:00 Aldibi - Makai  
18:00 AT Celaya - Pub Arrogoi

### Azaroak 9, igandea Zaldibar

09:50 Aterpe Kafete - Lauterbrunnen  
11:00 Betrayer - Totem  
12:00 Borrock & Roll - Los Heredia  
13:00 Jotakabau - Eusko Label

### Atsedena: D taldea: You Know



## Emaitzak

### A taldea

Bukanak 0 - Lontxo Taberna 9  
Insert Coin 4 - Saukelu Scream 2  
Rex 23 2 - Orlando Piratas 4  
Ke Oxtias! 11 - Rotor Bolbogra. 3  
Balon Rojo 2 - Alai Gozokiak 2  
Xhass Aldapa 5 - Leya 2  
Pepelus 2 - Aldibi 1  
Makai 0 - Ac Surkos 4  
Serengeti 2 - Komando Alpargat 9

### B taldea

Borrock & Rol 6 - DBK 3  
Los Heredia 2 - Aurrera Bolie 3  
Etxe Mobil 2 - Garaje Oscar 10  
Naranja Mecanica 2 - KKJauri 2  
Aterpe Kafe 0 - Txantxiku Kir. 14  
Lauterbrunnen 0 - Potrosorri 3  
Irati Sts 4 - Al Celaya 0  
Pub Arrogoi 3 - Koka Juniors 2  
Zotz 4 - Diego Antonio 4

### D taldea

Construcciones Luso 1 - Potroak 10  
Dribling 4 - Decadencia 1  
Fraguél Gol 0 - Sokoakoak 3  
Euskal Presoak 3 - Kamasutra 3  
Betrayer 1 - Branka Taberna 1  
Totem 3 - Jako al Rey 2  
Aita Menni 2010 1 - Jotakabau 1  
Eusko Label 3 - You Know 8

San Andres Xake Taldeko kidea

**JOSU TORNAY**

*“Norberaren izaera taulan ikusten da”*

— **Preferente mailan jokatzeko duzue?**

— Bai, Gipuzkoako mailarik altuena da. Hirugarren, bigarren, lehen eta preferente mailak daude eta gu preferentean ari gara. Gero Gipuzkoako, Bizkaiko, Arabako eta Nafarroako talde onenek, Euskal Herriko txapelketa jokatzeko dute.

— **Maila handia dago Gipuzkoan?**

— Ez dago maila handirik. Espainian, Katalunian eta Madrilan dago mailarik altuena eta han daude jokalaririk onenak. Euskal Herrian maila onena Bizkaian eta Gipuzkoan dago.

— **Jarraitzaile gutxi dagoelako?**

— Agian bai, baina izan daiteke euskal kulturaren xakea horren sarturik ez dagoelako. Dena den, euskal xakea Espainiako taldeekin alderatuz gero, esango nuke eta jokalaririk onak ere badaude: Gomez, 12. da Espainian eta 28.a, Ochoa, Espainiako Federakundeko lehendakaria da.

— **Arrasaten maila handia dago?**

— Jokalaririk onak ditugu herrian. Jende asko kanpokoak gara, lanera etorritakoak. Nire ustez horrek herri hau nolako den erakusten du; lana dela eta, jende asko biltzen du herri honek.

— **Nongoak zarete?**

— Hernando arrasatearra, Ortega lasartearra (Gipuzkoako 20 onenen artean dago sailkatua), Ruiz kantabriarra eta ni Bartzelonakoa. Ordezkoak Arriaran eta Vallina arrasatearrak dira.

— **Zenbat talde daukate Arrasaten?**

— Gure adineko beste talde bat ere badago. Gazteagoen artean, 3. eta 4. taldeak daude. Lehen taldeen ordezkoak ziurtaturik daude. Hiru urte barru bi edo hiru lagun lehen taldean arituko dira, ziur.

— **Zer garatzen da xakean?**

— Xakean maila ona izan nahi baduzu, asko ikasi behar da. Jendeak teoria asko dauka, baina horren aurrean denboraren aurka jokatzeko delako ere izan behar da kontuan eta esperientziarekin ikasten da posizio bakoitzaren nolakoa den eta gutxi gorabehera ze estrategia jarraitu behar duzun. Gainera, xakeak egunero aldatzen du: jokaldiak asmatzen dira egunero eta horregatik asko ikasi behar da. Xakean ez dago dana asmatua.

— **Xakean estilo ezberdinak daude?**

— Hainbat estilo eta estrategia daude. Xakeak karrera baten antza du: asko ikasi behar da. Matematikari buruz dauden beste liburuak daude. Zientzia, kirola eta artea da.

— **Zein jokalaririk duzue gustuko?**

— Bobby Fischer eta Kasparov. Kasparov egon den jokalaririk onena dela esango nuke. Dena den, nik nahiago dut Fischer bere jokoa eta izaeragatik. Norberaren izaera taulan ikusten da. Izaera nolakoak, jokoa ere halakoa.

— **Eta zuek nolakoak zarete?**

— Ruiz, Hernando eta ni jokalaririk onenak dira. Ortega, gogorra, kontserbadoreagoa, eta emaitza onak lortzen ditu.

— **Larunbatean Arrasaten jokatu duzue.**

— Lehenengo partida 4-0 galdu genuen Aretxabaletaren aurka eta bigarrena 2,5-1,5 irabazi Andoainen. Bihar Hondarribiko Marlaxkaren aurkajokatuko dugu, orain bi urteko euskal irabazlea. Kategoria nahiko zaila da, taldeek Euskal Ligarako sailkatu nahi dute eta.



**ERRUGBIA**  
**Egurra Getxon**



Senior mailako Arrasate Errugbi Taldeak sekulako egurra jaso zuen

Getxora egindako irteeran. Getxotarrak beterranoek dira errugbian, eta jokalaririk gazteak dituzten arren, mondragoetarrak baino hobekien izan ziren. Partida 77 eta 0 amaitu zen. Datorren astean etxean arituko dira Patxi Gorosabelen mutilak Atletiko de San Sebastian taldearen aurka. Partida Garagartzan izango da, arratsaldeko 16:00etan.

**ESKUBALDIA**  
**Sailkapenean azkenak**



Arrasate Eskubaloi Taldeak, garaipean zer den jakin gabe segitzen du.

Joan den larunbatean etxean aritu ziren EHuren aurka. Partida polita izan zen, nahiz eta emaitza ez zen etxekoek aldekoa izan. Dena den, esan behar da Bernardo Balerdiren mutilek gogor jokatu zutela Iturripen. Azkenean, ordea, irabazteko aukera galdu zuten. Norgehiagoka 18 eta 22 amaitu zen, bizkaitarren alde. Asteburu honetan Gure Ausune gasteiztarren aurka jokatu dute, Arabako hiriburuan.

**FUTBOLA**  
**Etxean ezin**



Preferente mailako Mondra taldeak ezin du Atxabalen irabazi. Igan-dean ere, saiatu saiatu zen arren, taldeak ez ezin izan zuen Oiztarren aurka. Aste honetan Pasaiaren aurka jokatu du, 12:15etan.



# Behobia-Donostia lasterketa, igandean

Igandean egingo da jadanik klasikoa bihurtu den Behobia-Donostia lasterketa. Arrasatearrak ere izango dira han. Joan den astean 40 mondragoetar joango zirela aurreratu genizuen. Baina izen ematea amaitu gabe zegoela ere azaltzen genuen. Hori dela eta, asko izan dira aste honetan Behobia-Donostiako 20 km.ak egiteko izena eman dutenak. Guztira 118 izan dira Loramendi Kirolakentzako puntatu direnak. Horietatik 52 dira herrikoak. Beste 28 Aretxabaletakoak, 14 Eskoriatzakoak, 7 durangarrak eta beste herrietako 17 lagunek ere eman dute izenak.

## DORTSAL GORRIAK

Behobia-Donostia klasikoan maila guztietako korrikalariak aritzen dira. Hori dela eta,

dortsalak ere ezberdinak izaten dira. Arrasaten izena eman duten korrikalarietatik bostek eramango dute dortsal gorria. Orubete eta laurden baino gutxiagoan aritzea saiatuko dira. Honela, Arrasatetik Luis Cascon, Luis Arroiabe, Luis Ugalde eta Javier Arribas arituko dira. Bosgarrena Aretxabaletako Ander Bengoa izango da.

## ZAHARRENA ETA GAZTEENA

Lasterkarien artean mutilak nagusitu dira aurten ere Arrasateko zerrendan. 103 dira gizonenak eta 15 baino ez, emakumeenak. Adinei dagokienez, korrikalari beterronena, 57 urte, Jesus Mendiarrak mondragoetarra izango da. Gazteena, berriz, 16 urte dituen Ander Ansoategi.



52 arrasatear arituko dira igandean, lasterketan.

# Etxean galdu zuten lehen aldiz

Arrasate Saskibaloia taldeak Azeitiko Jostaldi Kirolak taldearen aurka jokatu zuen larunbatean, Iturripen. Etxean galtzen zuten lehen partida izan zen larunbatekoa. Partidaren lehen zatian ondo aritu ziren eta 31 eta 20 iritsi ziren atsedendira. Bigarren zatian, ordea, nahiz eta markagailua alde izan zuten etxeok, azken orduan eta azeptiarrek lortutako jaurtiketa libre batzuei esker, aurretik jarri ziren markagailuan eta garaipena eskuratu zuten, 60 eta 62.

Asteburu honetan Iruñera abiatuko dira Larraona taldearen aurka jokatzera. Larraona taldeak joan den asteburuan galdu egin zuten, beraz etxean garaipena eskuratu nahiko dute. Hori dela eta, mondra-



Iruñera abiatuko dira asteburu honetan.

goetarrek gogor ekin behariko diote. Dena den, eta Iruñean jokatu dituzten aurreko partidak irabazi egin dituztenez, Danel eta Zesarren mutilek izango dute alderik.

Aste honetan Iruñeko

Larraona taldearen aurka arituko dira. Orain arte emaitza onak lortu dituzte Iruñera egindako bidaietan eta aste honetan ere horrela izatea espero dute jokalariei eta entrenatzaileek.

## Futbol taldeko neskak ezinean oraindik ere

Liga hasi zenetik ez dute garaipenik eskuratu neskek futbol taldekoak. Joan den igandean Esti Loitiren neskek etxean aritu ziren. Aurrez aurre Sondika taldea izan zuten, iaz liga irabazi zuten taldea, hain zuten ere.

Igandean, saiatu ziren, baina ezin izan zuten partida irabazi, nahiz eta aukurak izan. Azkenean, ordea, 3 eta 4 galdu zuten partida.

Aste honetan Bilboren aurka arituko dira igandean, 15:45etan.

**JUAN AYESTA** (DIARA DISEINU ENPRESA)

# “Estatuko diseinu industrialeko”

**Juan Ayestak Diara Aretxabaletako diseinu enpresan egiten du lan. Lantegia zabaldu zenetik dihardu hantxe, 1986. urtetik hain zuzen ere. Beasaindarra den arren, urte asko daramatza Arrasaten bizitzen.**

— **Nola otu zitzaizun Eurotrukearen ideia?**

— Diaran produktu berriak garatzen ditugu. Gure bezeroei eskaini beharreko produktuen ideia asko sortzen zaizkigu, eta hauxe izan da guk osoki garatu dugun lehen ideia: nolakoa izango den pentsatu, garatu, ekoizpena gestionatu, salmenta... Produktu berrien diseinuaz arduratzen den Estatu espainiarrean diseinu industrialeko enpresarik handiena da gurea. Ideia asko sortzen zaizkigu, eta kasu honetan Eurotrukearen aldeko apustua egitea erabaki genuen.

- **Zeintzuk dira Eurotrukearen ezaugarri nagusiak?**

— Xentimoak arazorik gabe eta zehatz borobiltzen ditu, araudi europarrak esaten

duen bezala. Gainontzeko kalkulagailu guztiek ez dute hori egiten. Horri guk garrantzitsua iritzi diogu, Euroaren xentimoek balioa baitute. Horretaz gain, erabilera azkarra eta zehatza du, eta diseinu alde-tik ere txikia eta modernua da.

— **Zein lan eman dizkizue Eurotrukeak?**

— Produktuaren diseinuaz gain, diseinu grafikoa, kaxaren diseinua, bilgotzearen diseinua... egin behar izan dugu, eta gauza horiek guztiek hemengo pertsona guztien laguntzarekin egin ditugu, taldeanaren bidez eta proiekturik proiektu egiten baitugu aurrera Diaran.

— **Philips-ekin ere hitzarmena egin duzue.**


— Printzipioz lankidetzat estua da. Guk 1992. urtean

ezagutu genuen Philips, eta ordutik hona hainbat proiektu egin ditugu elkarlanean. Philipsekin dugun hartuemana estua da, batez ere Espainia eta Portugalgoarekin.

— **Nola egiten duzue lan Philips bezalako**

**multinazional batekin?**

— Guri burura dakizkiguen produktu berrien ideiei buruz bi aldeek ados jarri behar dute horretarako. Izan ere, ideia ona izateaz gain, merkatuan izango duen harrera ere kontuan eduki behar da. Philipsek oso ongi ezagutzen du merkatua, eta gu, aldiz, produktu berrien garapenean iaioak gara. Beraz, ideien gainean eztabaidatu eta Philipsekin produktuak edukiko dituen ezaugarriak garatzen ditugu.



**“Diaran taldeanaren bidez eta proiekturik proiektu egiten dugu aurrera”**

# mpresa handiena da gurea”

— Orain arte diseinatu duzuen produkturik onena izan da hau?

— Ez. Osoki guk egin dugun lehenengo produktua izan da. Ekimena, inbertsioa, produktuaren kontzeptua, ekoizpen modua... guztia guk garatu dugu. Baina Diarak beste produktu askoren diseinua ere egin du. Produktu handietatik hasita (1989an Irizarren autobusa egin genuen eta 1996an Hong Kongeko metroa) hau bezalako produktu txikietaraino.

— Beste produktu batzuen ekimen osoa zuek

egitea pentsatu duzue?

— Ideia berriekin lanean gabiltza dagoeneko, eta bide-agarriak badira, baliteke guk osotasunean lantzea. Gure helburua urtean horrelako bizpahiru produktu ateratzea da, baina gauzak ongi joanez gero, gehiago ere izan daitezke. Beraz, produktuak merkatuan izango lukeen eskaera nolakoa litzatekeen eta bakoitzak izan beharreko ezaugarriak ikusi ostean, eskaeran dauden produktuen diseinuarekin elkarlotu behar da hori.

— Zer ikasi duzue Philipsengandik?

— Eskaera duten produktuekin darabilten merkatuaren ikuspuntua, batez ere. Philipsen duen salmenta indarra eta merkatuari buruz duen ezagutzaz baliatzea oinarritzkoa da guretzat.


— Noiz merkaturatuko da eta zein prezio izango du?

— Azken prezioa Philipsen erabakiko du, baina 1.000 pta baino txikiagoa izango da. Merkaturatzea, berriaz, azaroren lehen astean egingo da Espainian eta Portugalen, Philipsen eskutik. Gerora, datorren urteko hasiera aldera eta Philipsen presentzia propioa

duen Europako beste herrialde batzuetan saltzea erabaki daiteke. Diseinua, dena den, Diararen izenean dago patentatuta Europako herrialde ia gehienetan.

— Erabiltzeko argibideak bederatziz hizkuntzatan ikusi ditugu, baina euskerarik ez dugu ikusi.

— Argibideak bederatziz hizkuntzatan jarrita daude, baina Europako Batasuneko 11 hizkuntza ofizialetan jarri nahi ditugu. Izan ere, produktua Europako merkatu handira zuzenduta dagoela hartu behar da kontuan. ■



**WERU®**

**WERU®**

**Ate + leihoak**



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2  
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia  
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95  
ARRASATE



*Salterain*

**PVC-zko ate eta  
leihoez gain:  
moketak,  
zoru arinak,  
kortxoak,  
Louverdrape  
kortinak,  
Kortinoba, testila...**

# “Axularren historiak”, Patxi Salaberriren lana

Patxi Salaberri Muñoa aramaiorak *Axularren Historiak* izeneko bilduma idatzi berri du. Denbora luzea pasatu omen du Axularrekin, tesia ere Axularren prosaren inguruan egin zuen eta. Gerora geroz eta gehiago ezagutu du Axular, eta euskal literatura klasikoan hutsunea somatu zuen. Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da Patxi, eta beharbada hor ohartu zen literatura klasikoak duen zulotxoaz: “Ikasleek literatura klasikoak ez zutela gehiegi ezagutzen ikusi nuen, eta Axular horien artean dago. Horrek eman zidan hemen sartzeko keme-na”.

## AXULAR, PREDIKATZAILE TREBEA

Ezbairik gabe, aramaioar honek asko daki Axularri buruz. Honela aurkeztu digu: “Axular XVI. mendeko bigarren mendean jaiotako urdazubiarrak da, ikasketak Salamancan egin eta Geologian batxilergoa lortu zuena. Apaiztu ondoren, Donibane Lohitzunen pasa zituen urte batzuk, eta gerora Saran eskuratu zuen bere parrokiatxoak. Han igaro zuen hil arteko bizitza”. Gizon trebetzat du Patxi Axular, hizkera aberatsa zuen gizon eta predikari trebetzat.

Axularrek bere jatorrizko liburuan egindako egiturake-

ta mantendu nahi izan du Patxi. Haren “Geroco gero” liburitik hartu ditu testuak eta hainbat irizpide erabili du pasarteak aukeratzeko: “lehenik eta behin interesgarrienak hautatu nahi izan ditut, eta baita narratiba aldetik aberatsak iruditu zaizkidanak ere. Bestalde, Axularrek klasikoan artean bi testu mota ditu: profanoak eta erlijiosoak. Nik azken hauek baztertu egin ditut, biblia oso interesgarria izan arren, hango istorioak ezagunak baitira”.

## AXULARREN HIZKERA GOXOA

Ortografia arloko moldaketek ez diote buruhauste handirik eman Patxiri. Pasarteak aukeratzeko eta istorioen antolamenduak kezka gehiago sortu dio. Testuekiko fideltasuna ere mantendu nahi izan du bere liburuan, testuei ez baitzien Axularren hizkeraren zaporea ostu nahi. Halaxe esan digu berak, behintzat: “Aditzak ezin ziren inolaz ere aldatu, nahiz eta gaurko irakurleari beharbada urruntxo gelditu”.

Euskal irakurleak ez ditu gehiegi ezagutzen idazle klasikoak, Patxiaren ustez. Irakurle arruntak gaur egun argitaratzen diren obrak irakurtzen omen ditu. Klasikoak, aldiz, urrunago gelditzen omen zaizkio irakurleari, gaia-



“Axularren Historiak” liburuaren azala.

ri eta hizkuntzari dagokionez, eta edizioak ere askotan agortuta izaten dira.

Dena den, baliteke batek baino gehiagok hau irakurri-

ta autore klasikoengana hurbiltzeko gogoia izatea. Eta horretarako aukera Patxi Salaberri ematen dio, Axularren bidez.

**OSORIK  
PUB**  
Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE

**URRATS**  
AHOLKULARITZA  
CARIBAL, 3  
Tel.: 943 79 87 74  
ARRASATE

beinke

**UGARTE**  
Industria  
hornidurak  
Arrasate pasealekua  
Tel.: 943-79 83 96 / 943-79 23 00  
Faxa: 943-793412

GURUTZE URIBARREN, TRIKITILARIA

# Trikitia boladan dago

Gurutze Uribarren 19 urteko aramaioarra hamahiru urterekin hasi zen soinua ikasten. Gaur egun, irakaslea da Arrasateko Trikiti Eskolan. Horrezaz gain, bekadun lanetan ari da Arrasate Komunikabideak elkartearen.

— Noiz eta norekin hasi zinen trikitia jotzen?

— Hamahiru urterekin hasi nintzen, Maixa Lizarribarrekin, baina tarteka Asier Gozategiren laguntza ere jaso dut.

— Nondik datorkizu trikitiarekiko zaletasuna?

— Beti izan naiz erromeria zalea. Amamak ere panderoa jotzen zuen, baina ni soinua jotzen hasi eta gero izan nuen horren berri.

— Noiz hasi zinen irakasle bezala?

— Arrasaten aurtengoa da lehen urtea, baina Aramaion hiru urte daramatzat.

— Solfeoa beharrezkoa da soinua ikasteko?

— Ez, zenbaki bidezko teknikaren bitartez irakasten dut eta neuk ere horrelaxe ikasi nuen. Hala ere, solfeoa oso aberasgarria da.

— Zer alde dago soinu txiki eta handiaren artean?

— Trikitia erabilgarriagoa izateaz gain, diatonikoa da. Hau da, soinu handiaren hauspoa zabaldu eta istean nota bera irteten den bitartean, trikitian zabaltzerakoan nota bat ateratzen da eta ixterakoan beste bat. Hori da alderik nabarmena.

— Trikitia boladan dago?

— Bai, lehenago trikitia baserri giroko zerbait bezala ikusia zegoen.



Gaur egun, aldiz, trikitia pixka bat moldatu eta komertzialagoa bilakatu da, gazteen gustuen arabera.

— Trikiti klasikoa ala modernoa nahiago?

— Biak gustatzen zaizkidan arren, gaur egun talde batzuek nire ustez berrikuntza gehiegi sartu dituzte, Maixa eta Itziar bikoteak, esate baterako. Nik nahiago ditut betiko kalejira, bals eta mexikanadak jotzen dituzten taldeak. Gozategik, adibidez, ondo jakin izan du betikoa eta berria uztartzen.

— Zein da zuretzat trikitilaririk onena edo talderik onena?

— Duda izpirik gabe, Gozategi.

— Txapelketen aldeko ala kontrakoak zara?

— Guztiz kontrakoak naiz. Txapelketen inguruan interes handiak daude eta hori ez dut bat ere gustuko.

## aste gazte

### ■ DIRU LAGUNTZAK

• Administrazio publikoen hizkuntza normalkuntzari buruzko gaiak ikertzeko bi bekarako deialdia egin du Eusko Jaurlaritzak. Epea: azaroak 26.

### ■ LANA

• Debako liburutegirako, liburuzain bat behar da. Epea: azaroak 9.

• Gipuzkoako Diputazioaren Uliazpi Fundazioak, gizarte langilea edo gizarte langilea behar du. Epea: azaroak 12.

• Ibarako Udalako, administrari laguntzailea behar da. Epea: azaroak 16.

• Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatean, bi euskara teknikari lanpostu bete nahi dira. Epea: azaroak 23.

• Irungo Udalak hainbat lanpostu bete nahi du: planteamentu arkitektoa, antolakuntza teknikaria, "Staff tekniko"aren arduraduna, planteamendu, programazio eta informazio teknikaria, hiri-gintza saileko teknikaria eta hiritarrari informazio eta tramitazio zerbitzuaren administraria. Epea: EAOn argitaratu zain.

### ■ LEHIAKETAK

• Leioako Udalak margo-lari gazteentzako pintura lehiaketa antolatu du, 16-30 urte arteko gazteei zuzendua. Teknika eta neurri librean, Leioako herriari buruzko pinturak izan beharko dira. Lehiaketa eguna, azaroak 22.

• Irungo Argoiak kultura elkarteak, emakumearen astea iragartzeko hormirudi lehiaketa antolatu du. Epea: abenduak 19.

Berri gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 943 77 00 65

“Lehenago trikitia baserri giroko zerbait bezala ikusia zegoen”

**ETXEBIZITZAK**

**1. Saldu**

• Etxebizitza salgai Bizkaia Etorbidea kalean, 14 - 3. ezk. Tel.: 943 79 22 92.

**1. Erosi**

• Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten edo inguruan. Tel.: 94 499 01 05 (Milagros).

• Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 70 73.

**3. Errentan emateko**

• Berriztutako etxebizitza alokagai, Arrasate erdian. Tel.: 990 26 72 63.

• Erdi aldean bakarrik bizi den emakume batek bi oheko gela bat alokatuko luke. Interesatuak deitu telefono hauekara: 943 79 213 0 (goizez) edo 943 79 82 43 (arratsaldeaz). Mari

**4. Errentan hartzeko**

• Emakumezko ikasle italiarrak etxebizitza alokatuko luke Arrasaten edo Oñatin. Sukaldearekin eta jantzia. Dei egin Soziologia Fakultatera (Tel.: 943 78 30 64/943 78 34 00.) eta esan hurremanetan ipintzeko Carmen Paoluccirekin.

• Etxebizitza alokatuko genuke Arrasaten edo Aretxabaletan. Tel.: 943 79 20 61 (Ibon).

**5. Etxeak osatzeko**

• Gela bat behar dut ikaslez osaturiko etxe batean. Tel.: 943 60 41 80/943 60 34 95. Idoia.

• Mutil bat edo bi behar ditugu Donostian, etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 39 62.

• Ikasle batzuek etxebizitza alokatu nahiko genuke Arrasaten. Tel.: 943 79 79 38 (Danel).

• Gela bat alokatuko nuke Arrasaten edo pertsona bat falta zaien etxebizitza osatuko nuke. Tel.: 943 31 30 56. Gaueko 20:00etatik aurrera. Garikoitz

• Irakasle batek logela bat beharko luke, osatzeko dagoen etxebizitza batean. Tel.: 943 79 07 84.

• Bilbon pertsona baten bila gabiltza, ikasle etxebizitza bat osatzeko. Tel.: 943 79 28 05. (Iker).

**ETXEBIZITZAK**

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

**GARAJEAK**

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

**LOKALAK/ORUBEAK**

12. Saldu

**ETXEBIZITZAK**

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

**LANA**

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

**IRAKASKUNTZA**

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

**MOTORRA**

23. Saldu

**ETXEBIZITZAK**

24. Erosi
25. Bestelakoak

**DENETARIK**

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdtu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

**HARREMANAK**

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



**943 77 05 65**

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Hiru logela hiru pertsonarentzat, Arrasateko erdialdean. Tel.: 930 71 29 31. Arratsaldeaz.

• Gela bat alokatu nahiko nuke Arrasaten edo inguruan. Tel.: 943 77 01 21. Mitxel. Gauez deitu.

• Logela bat behar dut ikaslez osaturiko etxebizitzan. Tel.: 94 683 00 86.

• Alokairuan hartuko nuke etxebizitza bat edo logela bat. Tel.: 943 18 03 78 (asteburuetan) eta 943 76 55 67 (asteazkenean).

• Etxebizitza edo logela behar da Arrasaten. Tel.: 943 79 59 60 (lan orduetan).

**GARAJEAK**

**7. Saldu**

• Garaje itxia salgai. 14m<sup>2</sup>koa eta eta Zigorrola aldean dago. Dei egin 943 44 54 22 telefonora.

• Garajea salgai Urriburu kalean. Tel.: 943 79 45 58.

**LOKALAK/ORUBEAK**

**12. Saldu**

• Garaje itxia salgai Kontzezino inguruan. 18,9m<sup>2</sup> ditu. Tel.: 943 79 96 17.

**15. Errentan hartzeko**

• Gazte batzuek toki bat behar dute alokatzeko Musakolan ez den beste edozein lekutan. Tel.: 943 79 17 19. (Sergio, gaueko 21:00etatik aurrera).

• Neska talde batek toki txiki bat alokatuko luke. Tel.: 943 79 94 07 (Leire).

**14. Errentan emateko**

• 75 m<sup>2</sup>ko lonja bat alokagai Anboto kalean. Tel.: 943 79 98 07.

**LANA**

**17. Eskaintzak**

• Neska arduratsua prest umeak zain-

tzeko edo nagusiei konpainia egiteko. Interesatuak dei egin 943 71 53 74 telefonora, 20:00etatik aurrera.

• Neska prest umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 96 10 (Mari).

• Emakumea prest etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 77 06 74.

• Neska prest umeak zaindu, etxeko garbiketak egin edo saltzaile bezala aritzeko. Tel.: 943 79 69 66. (Ainhoa).

• Andra euskalduna prest umeak zaindu, etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 943 79 07 73.

**18. Eskaerak**

• Pertsona bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 56 30.

• Esperientziadun sukaldaria behar da. Deitu 943 79 22 15 telefonora (asteartean izan ezik).

• Gozotegi-dastaleku baterako pertsona bat behar da. Beharrezkoak dira esperientzia eta gidatzeko balmena. Tel.: 943 79 47 86. Arantxa (15:00etatik aurrera).

• Zerbitzaria behar da asteburuetan mahaiak zerbitzeko. Tel.: 943 79 68 57.

• Emakumea behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 77 13 30 (20:00etatik aurrera).

• Emakumea behar da umeak zaintzeko. Tel.: 943 77 02 49 (20:00etatik aurrera).

**IRAKASKUNTZA**

**20. Eskaintzak**

• Eskola partikularrak ematen ditut. Euskaraz zein gaztelaniaz. Tel.: 943 79 36 93. Patricia.

• Eskola partikularrak ematen ditut. Euskaraz zein gaztelaniaz. Tel.: 943 79 31 48. Maider.

• Psikologoa naiz eta eskola laguntza emateko gertu nago. Tel.: 943 79 86 28.

• Enpresa zientzietan lizentziadunak eskola partikularrak ematen ditu 16 urtetik beherakoentzat, euskaraz zein gaztelaniaz. Tel.: 943 79 06 39.

• Ingalaterrako lizentziadunak ingelesezko eskola partikularrak ematen ditu. Tel.: 919 54 64 64.

• Eskola partikularrak ematen ditut,

euskaraz zein gaztelaniaz, prezio onean. Tel.: 943 79 79 35. Asier.

## 21. Eskaerak

• Kontabilitateko eskola partikularrak hartuko nituzke larunbatetan. Deitu asteburuetan. Tel.: 943 7930 39.

• Eskolak hartuko nituzke gai hauean: programazioa, sistema eragileak eta sareak. Tel.: 945 44 51 56.

• Ekonomia alorreko matematika irakasle bat behar dut, Batxilergo LOGSE 2. mailan. Tel.: 943 79 39 62.

• Ingeles eskolak hartuko nituzke ostiral arratsaldeetan. *Advanced* maila. Tel.: 943 79 16 63/943 79 47 68.

• Frantsesezko eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 36 09 (Xabier).

• Peugeot 205 XR 3 ateduna salgai. Gris iluna metaldun kolorekoa. Egoera onean. 225.000 pta. Tel.: 943 79 02 28.

• Opel Corsa 1.2 Swing salgai. Kolore beltzekoa. SS - V. Tel.: 943 64 39 14.

• Kawasaki GPZ 400 F2 salgai. 94 urtekoa. Berri antza. maleta bat eta bi buru babesarekin. Tel.: 943 79 63 79.

• Ford Scort XR3 (SS-C) salgai, prezio onean. Tel.: 943 71 44 45.

• Hyundai Coupe salgai. 1.600 cc. 16 v. 114 HP. 97 urtekoa. urte terdiko garantia ofizialarekin. 33.000 km. Tel.: 930 22 80 85 (Jesus).

• Bigarren eskuko akordeoi kromatikoa erosi nahiko nuke. Pignini edo Borsini markakoa. Tel.: 943 79 98 07.

• Windsurfing-eko ohola salgai. Bic Presto 2,80m. 120litro. Egoera oso onean. 45.000pta. Tel: 943794347, e-mail: aritzmurgia@globalnet.es

• Pentium 133dun salgai. Giga bateko disko gogorra. 15 pulgadatako monitorrea. Inprimagailua. Windows 98. 32 mega RAM. CD Rom. 100 wko bozgoragailuak. Office 97. Tel.: 943 78 14 72.

• Sonola Markadun akordeoia salgai. 120 behe, lau ahots eta Base-ti. Tel.: 943 78 14 72.

• Bi oheko logela osoa salgai oso-oso merke. Tel.: 943 79 89 07

## 29. Eman

• Gurpil-aulkirik, taka-takarik edo makulurik badituzu eta ez badituzu behar, beste pertsona batzuek bai. Harremanetarako telefonoa: Bego Falces. Osakidetzako gizarte-laguntzailea. Tel.: 943 77 03 46/943 77 12 37.

## 31. Galdu

• Pasa den ostiralean argazki album txikia galdu genuen Mikel Lasa aseguru etxearen eskaileretan. Aurkituz gero, deitu mesedez telefono honetara: 943 79 90 91 (Nerea).

## 32. Aurkitu

• Maritxu gauean betaurreko graduatu batzuk aurkitu genituen. Galdetu Jai Zale tabernan.

• Ordularia agertu da Sokoia tabernan. Real Madrیدهkoa da. Tel.: 943 77 00 89 (Monika).

## 33. Bestelakoak

• Perkusio lantegia. Hastapen eta sakontze mailak. Hainbat ermito: afrikarrak, arabiarak, hegoamerikarrak, rock&rolla... Astelehenetan, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara, Gazteluondoko ikastolan. Izen emateko eta berri gehiagorako, Gazte Bulegora jo. Tel.: 943 77 00 65.

## MOTORRA

## 23. Saldu

• BMW 318 i5.16v Coupe. 90 urtekoa. 140 cv. Zuria. V-L matrikuladuna. Egoera onean. 120.000km. Prezioa: 850.000 pta. Tel.: 945 28 93 07.

## DENETARIK


## 26. Saldu

• Zimmerman pianoa salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 48 10.

• Trikitixa salgai. Tel.: 943 77 04 50.

# 1999 KALITATEAREKIN DUGU KONPROMISOA.

1998 atzean gelditzen ari da ...  
Urte honetan AENOREk emandako ISO 9002  
ziurtagiria lortu dugu.  
Sendotze eta baterakuntzarako urtea izan da,  
jadanik ia 200 gara.  
1999rako erronka garrantzitsu bat hartuko  
dugu geure gain: utziezinezko konpromisoa  
kalitatearekin . Eta baita zurekin ere.



# INDO IVS Lente Progresiboak Erosterakoan

MultiOpticasek National Geographic

aldizkariaren urtebeteko

harpidetza oparitzen dizu.

## MULTIOPTICAS

ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

Edonola begiratuta ere, **INDO IVS** lente progresiboak erosoena dira begi nekatuentzat, izan ere, ez baitituzu betaurrekoak aldatu behar izango edozein distantziatarara ikusteko. Eta orain askoz ere gehiago eskaintzen dizugu. **Azaroaren 30era arte**, National Geographicen eskutik paisaje eta kultura berriak aurkitzera gonbidatzen zaitu MultiOpticasek.



LORTU EZAZU MULTIOPTICAS-en «TRAVEL CLUB» PROGRAMAKO PUNTUAK.



ORDAIN EZAZU HIRU HILABETETAN ETA INOLAKO GAINKARGURIK GABE.

**LARRAÑAGA**

Ibargarai, 16  
Tel. 943761575  
**BERGARA**

J. Carlos Guerra, 1  
Tel. 943792995  
**ARRASATE**

J. M. Barandiaran Enp  
Tel. 943889988  
**ORDIZIA**

**EIBAR**

Bidebarrieta, 2  
Tel. 943200522  
**EIBAR**

**ERRETERIA**

Pl. de la Esmaltería, 7  
Tel. 943517811  
**ERRETERIA**

R.P.S. Nº 427/96



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

# Gida 99

ARKOren 99ko Gida Komertziala prestatzen ari gara dagoeneko.

Aurten, Kike Dapena eta Oihana Jausoro izango dituzu bisitari zure tabernan, dendan edo lantegian komertzial lanak egiten.

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako merkatarien telefonoak jasoko dira Gida 99an.

ARKOren gidan azaldu nahi baduzu edo berri gehiago jaso nahi izanez gero, deitu ARKOra (943 77 08 15).

Gida 99, zure lana errazteko.



ARKO (Arrasate Komunikabideak)

Gida 99

Gida 99



# Irratsaio berriak Arrasate Irratian

Arrasate Irratia berrikuntzaz beterik etorri zaigu sasoi berrian. Hasteko, aurpegi eta ahots berri asko ditugu. Eguneroko esatariak Arantxa Egoskozabal oñatiarra eta Marian Porcel mondragoetarra dira. Teknikari lanetan, berriz, Belen Carenas arrasatearra. Beraiek dira irratia programazioaren arduradun nagusiak.



Jai Larai umeentzako irratia saioa larunbatero, 10:00etatik aurrera.

## IRRATSAIO BERRIAK

Programazioak ere izan du berrikuntzarik. Betiko programazioaz gain, beste lau irratsaio berri aineratuko ditu Arrasate Irratiak.

Lehen berrikuntza asteleheneretan izango da: bi astean behin, Garbiñe Perezek eta

Vanesa Gonzalezek "Magali" izeneko saioan ipuinak izango dituzte hizketagai.

Bigarren berrikuntza Mainer, Miren eta Karmeleren eskutik datorkigu. Hiru neska hauek entzuleen belarriak

goxatuko dituzte beraien "Hi Bizi Hadi" musika programarekin. Asteartean izango dugu "Hi Bizi Hadi" irratsaioa entzungai, gaueko 21:00etatik 22:00etara.

Asteazkenean Maika Aiz-

puruaren txanda izango da, "Top Musika" saioarekin, gaueko 21:00etatik 22:00etara

Azken berrikuntzarik dago-kionez, ostiralean zineari astindualdi bat emango dion saioa izango dugu uhinetan, "Hiru, Bi, Bat: Akzioa!" irratsaioa hain zuzen ere, neska kuadrila batek zuzenduta eta aurkeztuta.

Aldaketa txiki bat ere badago ohiko programazioan, "Kaleko Hautsak Astinduz" irratsaioa hemendik aurrera asteleheneretan 10:00etatik 11:00etara uhineratuko da. Badakizue, Arrasate Irratia dialaren 107.7an aurkituko duzue.

## ■ ATBren programazioa

LARUNBATA, 7	ASTELEHENA, 9	ASTEARTEA, 10	ASTEAZKENA, 11	OSTEGUNA, 12	OSTIRALA, 13
<b>13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika:</b> Munduari Bueltaka, Aurrez Aurre, Kaleidoskopia, Soinuz Blai eta Astebete.	<b>13:30 Albiste aurrerapena</b> Zigor Txurruka lankideak aurkeztuta.	<b>13:30 Albiste aurrerapena.</b>  <b>13:35 Mondrasport (Errepika).</b>  <b>20:00/20:30/21:00 Berriak.</b>  <b>21:30 Musiklasik</b> Iñaki Olaizola eta Marta Izagirrek aurkeztuta.	<b>13:30 Albiste aurrerapena.</b>  <b>13:35 Musiklasik (Errepika).</b>  <b>20:00/20:30/21:00 Berriak.</b>  <b>21: Mahai Inguru, gaia:</b> Hauteskunde sindikalak. Rosa Mondragonek zuzendurik.	<b>13:30 Albiste aurrerapena.</b>  <b>13:35 Mahai Inguru.</b>  <b>20:00/20:30/21:00 Berriak.</b>  <b>21:30 Kaleidoskopia.</b>  <b>22:00 Soinuz Blai.</b>	<b>13:30 Albiste aurrerapena.</b>  <b>13:35 Kaleidoskopia. (Errepika).</b>  <b>20:00/20:30/21:00 Berriak.</b>  <b>21:30 Astebete.</b>  <b>22:00 Soinuz Blai. (Errepika).</b>
<b>IGANDEA, 8</b>  <b>13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika:</b> Munduari Bueltaka, Aurrez Aurre, Kaleidoskopia, Soinuz Blai eta Astebete.	<b>20:00/20:30/21:00 Berriak.</b>  <b>21:30 Mondrasport</b>	 Iñazio Olaizola		 Unai Iparagirre	

Lente



**E**gun txarra izan zuen Mondrak 1963ko egun hartan Errenterriako Larzabal futbol zelaietan: 1-0 galdu zuen. Orduko taldean inguruko

herrietako askok jokatzen zuten Mondran, baina baziren herrikoak ere. Hona hemen egun hartako partida jokatutuenak. Zutikezkerretik hasita, Luis M. Beltran (+), Pablo Bergaretxe, Mateo Salaberria,

Esteban Gomez, Manuel San Vicente *Zurdito*, Lamarka eta Felix Gaintzarain.

Belaunikaturik, Sanz, Juan Egaña *Pitia*, Tomas Iturrikastillo, Javier Lazkano eta Okariz.

-- Argazkia eta berriemailea: Manuel San Vicente, *Zurdito*

**ARRASATE  
HOTELA**

Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16  
ARRASATE

**Pavimentos AGR**  
ARROZTEGIA

**APAINKETA**

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak  
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar  
MATERIALEN SALMENTA

**Erakusketa eta biltegia:**  
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE  
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

**ZUBIZARRETA  
LANTEGIAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65



# DENDA BERRIA!

**Gotzon Agirrezabal**

Tel./Faxa: 943 76 72 52

**ORDUTEGIA**

astelehenetik zapatara:  
10:00-13:00 eta 16:00-20:00.

**T**  
textil  
agirrezabal  
**A**

AIT-ITV eta autobus  
geltokitik 100 metrora

- Ehunak eta oihalak
- Tapizeriak
- Kortinak
- Nordikoak
- Era guztietako etxerako gaiak



Amillaga 5 • BERGARA • Renault-en ondoan



# MULTIOPTICAS



## GORTASUNAREN LAGUNTZA JARDUNALDIAK

**AZAROAK 9-10-11-12-13**

DEITU TXANDA HARTZEKO

ENTZUMENAREN AZTERKETA DOHAINIK

AUDIFONOEN APURKETAREN ASEGURUA  
(LEHENENGO URTEA)

ORDAINKETA, NORBERAREN NEURRIAN

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA, GAESen LANKIDETZAREKIN,  
FINKOTASUN BETETARIKO KONPROMEZU BAT.



# LARRAÑAGA

Ibargarai, 16  
Tel. 943761575  
BERGARA

J. Carlos Guerra, 1  
Tel. 943792995  
ARRASATE

J. M. Barandiaran Enp  
Tel. 943889988  
ORDIZIA



# centro hogar MUEBLES



a, eme interiores

sukaldeak



Sofa  
leku

**GRUPO**  
**M**  
**Amuebladora**  
**Mondragonesa**

C/ Zigarrola, 1 pab. 6-10 • C/ Garibai, 9 • 20.500 ARRASATE  
Tel. 943.791503 - 943.771492 • Faxe 943.791498